

HAMABOSTEKARIA 124. zenbakia 97ko urriak 31

GOIERRITARRA



*Igartzakoa naiz
Tolosatik 4 legoatara*

Arg.: M. Albisu



3 Plazakoa

**Lehen: 162.300
Orain: 129.840**

**ERAMAN ORAIN ETXERA TELARIK
BERRIENAREKIN ETA MERKEENAREN PREZIOAN
(AZAROAN BAKARRIK)**

h e m e n
DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA
TFNOA./FAXA: 88 46 41

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK

Arg.: Xabier Mujika



OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15

☎ 88 01 42

ORDIZIA

PELLO HARATEGIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko

Mariaratz, 2

☎ 88 80 11

BEASAIN



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia


Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 88 17 17
☎ 16 05 16

LAZKAO

Olano Harategia

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



Odolki eta bertako
haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3

☎ 88 07 78

BEASAIN

IÑAKI ZUBELDIA



KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

K. Nagusia, 14

☎ 88 27 47

BEASAIN

J. MUJIKA Harategia



Nafarroa Etorb. 31 ☎ 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 88 08 78
Etzea ☎ 16 06 02

ORDIZIA

IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Ordiziako dastaketan
97. urtean irabazle

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo eta tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4

☎ 88 28 27

ORMAIZTEGI

HESTEBETEAK



"ORMAIZTEGI"
ODOLKIAK

JESUS MARI DEBA

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jaketxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 72 17 10
☎ 88 26 59

EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Aitor Arrue, Urko Irastorza, Koldo Urrestarazu, Josune Aldabe, Gabino Murua, Edurne Albizu, Nagore Goiburu, Josune Amondarain, Aloña Galarraga eta Etor Mendia.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Beasaingo Odolki lehiaketa
azaroaren 8an**

Udazken kulturalaren barruan ospatuko da aurtengo Beasaingo Odolki lehiaketa. Azaroaren 8an izango da, eguerdiko 12.00etan hasita, Loinazko San Martin Plazan. Inguruko odolkgileek har dezakete parte lehiaketa honetan. Ospe handiko lehiaketa da Beasaingoa. Irabaziz gero, salmentak nabarmen igotzen zaizkie harakinei. Iazko 'Odolkiaren erregea' beasaindar bat izan zen, Juan Mari Irizar.

Epaimahaia, Karlos Argiñano sukaldari beasaindarra buru dutela, hainbat eta hainbat sukaldari eta pertsona ezagunek osatuko dute. Guztira 6 mahai izango dira, launa pertsonen osatua. Lehenengo fasean parte hartuko duten odolkiak mahaian zozketa bidez banatuko dira. Puntuaziorik altuenak lortzen dituztenak bigarren saiora igaroko dira, mahai

guztietan dastatuak izanik. Bigarren dastaketa hauetatik aterako da irabazlea.

Irabazleak, ohiturari jarraituz, otsailaren 5eko Odolkiaren Kofradiako urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Horretaz gain, zeramikazko platera eta 25.000 pezeta jasoko ditu.

Azoka

Iazkoa odolki lehiaketa baino zerbait gehiago izan zen. Azoka berezia egin zen San Martin plazan bertan, bertako produktuak salduz. Arrakasta ikusirik, aurtengo azoka Zubimuzu plazara zabaltzeko asmoa dago, produktu gehiago salgai jartzeko.

Ohi bezala, odolki pintxoak ere salgai izango dira, Plazan egongo den txoznan. Eta nola ez, Beasaingo 'Martintxoak' pasteltxoak ere bai.

BOTA BERTSOA



Antton Garmendia

Usoak

Doinua: Pello Joxepe

Uso garaia iritsi da ta egunsentian mendira. Ehiztari arten kontu bakar bat asko pasako balira. Kanean ere jendea dabil beti zerura begira. Nere galdera hauze deue: denak chiztari al dira?

Tiro ugari entzunagatik usoak badoaz hegan eta bakar bat etxeratzeak badakarki hamaika lan. Martxa honetan ez da izango guretzako kazuelan. Ta aurtengo ere soziedadean lagunekin nahi nuke jan.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Burujabetasun Egitasmoa gizarte anitz batentzat (I)

XXI. mendeak ekarriko dizkigun erronkei aurre egiteko asmoz, eztabaida prozesu bat irekia da EGIN, aldaketa guzti hauek aztertzeko, bertan onartuko delarik EGIn norabide politikoa hurrengo 10-15 urteetarako.

Asmo nagusizat euskal gizartearen egituratzea harturik, ezagutzaren mundu globalizatu honek aurkeztu dizkigun erronka berrietara egokituko den Euskal Herriarentzako Burujabetasun Egitasmoaren laburpen hau aurkeztu nahi da. Euskal gizartearen aniztasuna errespetatu eta denok ahalik eta erosoan aurkituko garen Botere Koadro Berri bat alegia. Ondorioz, nahiz eta datorren mendearekin zabalduko zaigun errealitatea zein izango den argi ez izan, garbi dago beste garai berri bat datorkigula eta garai berri horretan Euskal Herria bezalako nazioek bere lekua izan dezaketela. Eta zergatik diogu hau? Argia da, mundializazio fenomeno delako medio, Europar Batasunaren integrazio prozesua aurrera doan heinean, estatus-nazioen erortzea aurrera doala.

Horrela, estatalitatea krisian badago, guztiontzat dago krisian, bai Euskal Herriarentzat, baina baita Espainia eta Frantziarentzat ere. Abertzaleon aldetik suizida izango da mezu hau barnerratzeko Europako estatus-nazioek ere barnerratzeko ez badute. Ondorioz, Gora Euskadi Askatutaren berformulazio bat eginaz, euskal estatu baten aldarrikapenak zentzua galduko balu, guztiz beharrezkoa bilakatzen da egungo errealitateari erantzuteko gai diren estatu ez diren entitate berrien ezagutza. Autore des-

berdinen hitzetan XXI. mendearen protagonista nagusi bilakatuko diren gune ekonomiko natural edo estatu-erregioak izango lirateke XXI. mendeko estatu berri hauek. Eta garbi dago gune natural hauetako bat Euskal Herria dela. Esan dugun bezala, Kenichi Ohmaek estatu-erregio bezala deskribatu dituen gune natural hauek izan daitezke, XX. mendean estatuak bete duen papera bete dezaketenean XXI. mendeko errealitate berriak.

Zentzu honetan, oraingo belaunaldiari dagokigun lan nagusia etorkizunean protagonismo nagusia izan dezaketenean gune natural horietako bat Euskal Herria izan dadin, dagozkion erronka berriei erantzuna emateko gai izango den egitasmo bat prestatzea da. Euskal Herriari dagokion plasmazio juridiko-politiko-ekonomikoa emanaz, Botere Koadro Berria definituz, euskal gizartearen egituratuko duen Burujabetasun Egitasmoa prestatzea alegia.

Egungo Euskal Herriari begirada bat botako bagenio, euskal gizartearen osatzen duten alderdi kulturala, politikoa eta ekonomikoa egiteko daukela ikusiko genuke, Euskal Herria oraindik guztiz egin gabe, heldu gabe, dagoen herri bat dela alegia. Alderdi kulturalak, gune naturalaren izaeraren alderdi identitarioari egiten dio erreferentzia. Horrela, aniztasun honetatik ondorioztatzen diren euskal espresio kultural guztiei zor zaie begirunetik, aipamen berezia mereziko luke euskarak. Beroni dagokionean, nahiz eta aurrerapauso nabariak eman, oraindik bide asko dago jorratzeko. Zentzu honetan, euskararen gainean, luze eta zabal idatzi daitezkeen arren, ezagutza mailan aurrerapen handiak eman direla

ezin badaiteke ukatu ere, oraindik hutsune nabari asko ditugula ere ukazina da.

Goierriko EGI

Lareo mendiko proiektu turistikoaz

Aralarko Parke Naturalaren barruan kokaturik dagoen lareo mendian herri txiki bat sortu nahi dute. Orain arte, jendearen iharduera naturalak eta erakargarriak izan diren horiek, erabateko maila artifizialean gune turistiko bilakatu nahi dituzte, pribatizazioa bultzatuz, naturari egiten zaion kaltea kontutan hartu gabe.

Lareon eraiki nahi duten gune-turistiko hau Euskal Herrira turismoa ekartzeko apostu egin dutenen estratergi politikoan kokatu behar da. Apostu estratergi honetan, Goieki garapen ajentziak zerikusitu zuzena izan du. Hain zuzen, 3. sektorea bultzatzea helburu duen honetan, 1. sektorearentzat, hau da, nekazar munduarentzat heriotza planteatuz, zerbitzu eta turismoko planteamendua du Goierrirentzat osagarri gisan.

Beraiek edozein proiektu saltzeko garaian, mendeetan zehar herri honen zutabe izan den nekazaritzaren heriotza dakarrenik ezin dute esan, eta proiektu hauek 'osagarri' direnaren mezua saldu nahi dute. Proiektua saldu nahi dutenen beste argumentua lanpostuena da. Azterketa eta zehaztasun gehiagorik gabe, lanpostu batzuren truke, edozein proiektuari ezin diogu baietzik eman. Gainera, proiektuarekiko sinesgarritasun handirik ez dugu, alegia, besteak beste, hasieratik hona lanpostu kopurua gutxitu egin baitute eta ez da zehazten ere zer nolako lan baldintzak izango dituzten. Lan-

gilegoaren prekariedade handiena ematen den sektorea turismoarena da. Eta hemen aurkeztu zaigun proiektua turistikoa izanik eman daitezkeen prekariedade maila ikus-tekoa izango da.

Lareon sortu nahi duten herri txiki honek, neurritz kanpoko izateaz gain, Ataungo arazo ekonomikoari gutxi lagunduko dio eta al-diz, egingo dituen kalte ekologikoak, orekan jarrita, handiagoak izango dira. Denboran zehar, proiektu turistiko honek porrot egiten badu, zer gertatuko da? Gure ustez, orain herriaren lur-sailak direnak, dirudunen esku pribatuetara pasatuko dira, txalet txikiz osatutako luxuzko gune bat bihurtuz. Honela, bizitza oreka apurtuko litzateke eta gainera neurtu ezinezko kalte ekologikoak izango liratezke. Horrelako proiektu baten aurrean, herriko gaur-geroaren ezterketa sakonago eta zabalagoak egin behar dira. Orainarte aurkeztutakoek, Enbatarena zein Ataungo Udalararen eskariz egindako bi azterketak, oso azalekoak izan dira, eta galdera askori erantzunik ez zaie ematen.

Gure herriaren etorkizuna proiektu honen baitan ez dagoenez, guztion arteko planteamendu zabal eta epe luze-rako baliagarriak izango diren proiektu tinkoak bideratu eta gauzatu behar dira, beste-la, gaurko ogiaren truke, biharko gosea ari gaitezke-lako arriskatzeko.

Beraz, proiektu honen neurria eta duen garrantzia ikusirik, berari baietza ala ezetza eman aurretik herrian eztabaida sakon bat sortu, eta Udal organotik kanpo proiektuarekin zerikusia duten talde, elkarte eta herritarrek erabakia hartzea dela zuzenena deritzogu.

Ataungo H.B.

TXANDAKA

Herri-kirolez hitzik ere ez

Oraintxerarte ez dut mundu honen berri gehiegitxotan izan. Nahiz eta hala-beharrez zenbaitetan sasi edo garoren bati bizitzeko aukera ukatu. Segak, bazirela bai, kirtanak bi helduleku zituela ere banekien, baina "estiloa" zenbaitentzat "teknika" nerona nuen. Halere, Alemaniaraino eramanez ninduen aitzo xelebre horrek. Sinesten lanak!

Abuztua ezgeroztik ordea, hamaika buruhauste bitarteko, euskaldunon sega baldar hauek beste berezi eta ustez egokiago batzuegatik trukatu ditugu. Zenbait baseritarren harriurarako. Bixente Mitxelena, Juan mari Agirrezabala, Migel Mari Jauregi 'Altzo' edo horrelako izen handiko segalarien hitzetan "amustu nekezago egiten dira eta hiru metroko maila hartzea ez da beste munduko kontua".

Beste munduko kontuak dirudite ordea segarienak, interesik gabekoak, baseritarrei bakarrik dagozkienak. Txirindularitzan esaterako euskal selekzioa ez dugulako eskuak burura botata jartzen gara aguro. Telebista piztu eta ETBn bertan atzerriko taldeak dihardutenean futboleant, eserlekuan aupaka aritzeko lotsa auzoan uzten dugu. Baina geureak diren herri-kirolak galtzera doazela ikusirik eta komunikabideek hitzik ere ez dizkiela eskaintzen jakiteak dirudienek ez du ajola. Kinielarik egiterik ez dagoelako ote da?

Herri-kirolen muinean Herri Zahar honen bizi baldintzak isladatzen dira eta esfortzuaren oihartzuna egun plaza gutxitan entzun daiteke. Azkeneko aldiz, joan zen urriaren 5ean entzun genuen eta Zaldibira hurbildu zirenek, koloretako bufandarik ez bazeramaten ere, oraindik gogoan izango dute lehen ogibide zena zer nolako ikuskizun paregabea bilakatu den. Nazioarteko lgo sega lehiaketa izan zen hura. Izango dira gehiago ere. Baina galdera bat geratu zait kakoan. Komunikabideek ez zuten ba usteko Bixente Mitxelena bat, Zaldibira, erroskila saltzera joan zenik, ezta?

Aloña Galarra Lekuona



Guggenheim ikustera joateko asmorik ba al duzu?



Alaitz Iraola
19 urte, ikaslea
ordiziarra

Printzipioz ez daukat asmorik. Bonbo gehiegi eman die eta piska bat aspertu ere egin naiz.

Artzeiz Aldanondo
24 urte, langilea
lazkaotarra

Momentuz ez. Kanpotik izugarria dela esaten dute, barrutik ez dakit nolakoa izango den. Hala ere, arteaz ez dut gehiegi ulertzen.



Mikel Huarte
28 urte, irakaslea
lazkaotarra

Zertarako nahi dut nik Guggenheim? Arteaz ez zait interesatzen. Goikoentzat eginga dago.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



Zaldizurreta kalea
☎ 88 45 06 **BEASAIN**



● Jkastaroak:

Dekorazioa: egurra, alabastrina, erretxina...
Pintura: oihala, metala...

● Esku lanak
● Opariak

☎ 65 55 77 ☎ 88 40 56
Nafarroa Etorb. 10 **Andra Mari, 5**
TOLOSA BEASAIN

ZINEA

GOIENIZ:

'La frontera'. Azaroak 6, Usurbe Antzokian, 21:00etan.

BEASAIN:

'Mentiroso compulsivo'. Larunbata 1: 22:15; igandea 2: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 3: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Martin Hache'. Ostirala 31: 22:15; larunbata 1: 19:30 - 22:15; igandea 2: 19:30 - 22:15; astelehena 3: 19:30.

'La dama y el vagabundo'. Igandea 2: 16:45.

'Poder Absoluto'. Ostirala 7: 22:15; larunbata 8: 19:30 - 22:15; igandea 9: 19:30 - 22:15; astelehena 10: 19:30.



'La frontera'

Ricardo Larrain (Txile, Esp. 1991)

Ramiro, matematikako irakaslea, Pinocheten diktadurapean Txileko hegoaldean konfinatuko dute, errepresioa jasandako lankide baten aldeko protesta agiri bat sinatzeagatik. Atzerri horretara iristen txakur moduan hartuko dute eta elizan babestu behar du, nahiz eta apaizak — gainontzeko herritarrak bezala — berari buruz estereotipoz jositako ideia izan, eta ixiltasuna nagusitu den. Ramirok aurkituko duen lehen harremana Espainiako gerra zibilaren ondorioz errefuxiatutako emakume euskaldun batekin izango da, agian hark bere egoera uler dezakeelako.

Ricardo Larrain zuzendaria deskribapen zorrotzak jarraitzen ditu eta mehatuak kutsatutako giroak sortzeko ahalmen berezia adierazten du, baita irudimenezko munduak sortzeko ere; hau guztia giza errealitate gordinarekin duen konpromezu sendoa saihestu gabe.

BERTSOAK

ATAUN:

Azaroak 7, A. Egaña, A.M. Peñagarikano, J. Sarasua, U. Iturriaga, S. Lizaso eta J. Munduate. Gai jartzaille: Jon Aizpurua. Auzoeta Kiroldegian 22:30etan.

MUSIKA

ARAMA:

Azaroak 7, Alaitz eta Maider, plazan, 23:00etan.

BEASAIN:

Azaroak 2, 'Tirri-Tarra'-ren 'Kass & kass' show berria, Loinazko San Martin Plazan, 19:30etan.

Azaroak 7, Benito Lertxundi, Usurbe Antzokian, 23:00etan. Sarrerak aurretik salgai, 1.200 pezeta.

Azaroak 8, Furunda taldea, San Martin Plazan, 23:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 1, Zirnytsia haur abesbatza (Kiev-Ukrania), Eliz Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 3, Sokkelund Sangkor abesbatza (Danimarka), Eliz Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 4, Mongolian Inner abesbatza Chorus (Txina), Eliz Parrokian, 20:00etan.

ORMAIZTEGI:

Urriak 31, Oñatiko Legash taldearen kontzertua: heavy-rock, Itxune tabernan, 22:30etan.

Azaroak 7, Donostiako OH-gloukon taldearen kontzertua: rock&rolla, Itxune tabernan, 22:30etan.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Urriak 31, 'Chicos Mambo show' taldearen 'Barcelona, Paris, Caracas' antzez-lana, Usurbe Antzokian, 22:30etan. Sarrerak aurretik salgai, 800 pezeta.

Azaroak 1, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoan 'Pantera beltza' ikuskizuna, Usurbe Antzokian, 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak aurretik salgai, 800 pezeta.



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN



MASTER

- ✓ Sukaldeko altzariak
- ✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84
BEASAIN

OSKARBI Liburudenda

- Papertegia
- Opariak
- Eskola materiala
- Fax zerbitzua
- Plastifikazioa
- Koadernaketa

Oriamendi, 13 ☎ 16 04 81 BEASAIN

ZERBITZU BERRIA:

Zuri-beltzezko eta kolorezko FOTOKOPIAK



- GAZTE MODA -

Nafarroa Etorb., 1 BEASAIN

Azaroak 5, Kafe-antzerkia: Xebe Diez eta Teresa Lopez de Munainen 'Urrundik eta elkarrekin' lana, Teide kafetegian, 22:30etan.

Azaroak 9, Kale-antzerkia: 'Trapu zaharra' taldearen 'Tambores mudni' ikuskizuna, Kale Nagusian eta Zaldizurreta plazan, 19:00etan.

HITZALDIAK

LAZKAO:

Azaroak 4, Emakume saharaiarrei buruzko hitzaldia, Gurutze Irizar Sahararen Lagunak elkarteko kidearen eskutik, Udaletxeko Batzar-aretoan, 17:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Azaroak 12, Jabier Juanes de la Peñaren 'Udazkena eta neguaren hasiera' ikusentzunezkoa, Maizpiden, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Azaroaren 9ra bitartean, VI. Aire Zabaleko Pintura lehiaketan aurkeztutako lantzen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

ORDIZIA:

Azaroaren 7tik 21era bitartean, Pedro Díaz Obregonen pintura erakusketa, Barrena Kultur Etxean.

IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 2, Murumendi eta Garinen Finalistaren eguna.

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 2, Betelu-Azkarate-Zerate-Amezketak.

Azaroak 9, Zestoa-Ekain-Izarraitz-Azpeitia.

'Euskal kultura gaur'

Joan Mari Torrealdaik 'Euskal kultura gaur' liburua aurkeztuko du azaroaren 6an, Beasaingo Kultur Etxeko Bibliotekan, 19:30etan. Antolatzailea: Kulturkide.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.

☐ Ordizian Arantxa taberna traspasatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.

Salerosketak:

☐ Txuri-beltzeko telebista salgai. Prezio onean. 889814. Eguerdietan deitu: 1.00etik 2.00etara.

☐ Salgai dauzkat Reflecta proiektorea, Amnistiaren sinboloa duen forro polarra eta irratikasete bat. 882278.

Lana:

☐ Esku soinuak konpon-tzen dira. Marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara, ostegunetan ezik.

☐ 2 neska euskaldun prest daude zaharrak, haurrak eta minusbaliatuak zaintzeko. Esperientziadunak. 882589.

Bestelakoak:

☐ Urriare 22an, Zaldibia-tik Ordiziarako bidean pultsera bat galdu nuen. Norbait aukitu badu 16 18 28-ra dei dezala. Mariasun.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).

Azaroak 1-2: Lournaga (Nagusia, 40 - Ordizia).

8-9: Urbizu (Nagusia., 8 - Beasain).



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 ☎ 161606
ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 88 60 70

BEASAIN



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierrri, 12

ORDIZIA

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

✓ Eskola laguntza
✓ Maila eta arlo guztiak
✓ Unibertsitate-maila
✓ Banakako laguntza
✓ Talde txikiak

Informazioa:

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN



Goierriko Herri Batasuna

“Gipuzkoa eta Nafarroako Institutzio eta Arduradun nagusien aldetik Etxegarateren bikoizketaren gaiaren aurrean ezbetetze eta utzikeria dela medio, mobilizatzen hasteko garaia iritsi da, eta EAK orainartean PNVk egiten duen frenu lana egiten baldin badu, bere iharduera salatu beharko dugu, bai Plataformaren barruan, eta baita bertatik kanpora ere”

Bada garaia, eta kitto! Premia egon (latza gainera), dirua egon eta oraindik Etxegarateko mendatearen bikoizketa hasi ere egin gabe. Geroz eta ulergaitzagoa egiten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta bere arduradunek daukate egoera honen erru guztia. Behin eta berriz ari gara hori esaten, eta alderantzizkoa demostratzen ez den bitartean hala jarraituko dugu.

GOIERRIKO EAK eginiko idatzia irakurri ondorenean, badi-rudi alde guztiek dutela erantzunkizuna, beraiek, eta orain-txe arte beraien arduradun nagusia izan den, Jose Julian Irizar Garraioetarako Foru Diputatuak ezik. Guk argi diogu, Foru Aldundian bere ardura arloa, zehazki Garraio eta Azpiegitura izanik, Jose Julian Irizar dela gutxienik ere azken bi urte hauetan Etxegarateko mendatea ez bikoiztearen errudun nagusienetarikoa bat. Errealitatea objetibotasunez ikusteko ahalmena duen edonork daki, Irizarren Departamentuak azken urte hauetan 6.050 milioitako diru kantitatearen egikaritzaren bere eskuetan eduki duela eta daukala, eta oraindik ere zentimetro bat ez dutela bikoiztu Etxegaraten. Oso xinplea.

EAK EZIN DIE PNVko alkate oztopatzaileei, Maltzaga-Urbina lehenago egitearen alde daudela aurpegiratu, berak egin dezakeen eta egiten ez duenaren aitzaki hutsa besterik ez baita. Batzuk argiago erakutsi dute, besteek ez hainbeste, baina biek ere interes partidistak aurretik jartzen dituzte, eta momentu honetan gobernuan daudenentzat interes ekonomikoak Maltzaga-Urbina lehenago egitean daude, garai batetan Leizaranen zeuden bezala. Orduan PNVk EAKi pastel gozoa jan ziolako, EAKideok azkurea baldin baduzue, ez da gure arazoa. Orduan bezalaxe fin eta barne interesik gabe

Bakoitzak bere erantzunkizunak onar ditzala

gabilta gu HBTik Etxegarateko bikoizketaren gaian, eta hau, lehenbailehen bukatua gertatu dadin gure eskuetan dagoen guztia egiteko prest gauden, bai Plataformaren barrutik eta beste leku guztietatik ere.

EZ DUGU AHATZU BEHAR gainera, maiatzean Gipuzkoako Batzar Nagusietako Errepide Azpiegituren batzordean Plataformako kideek, Etxegarateko obrak aurreratzeko eginiko eskariari, Jose Julian Irizar jaunak ezetz borobila eman ziola.

ETXEGARATEREN BIKOIZKETAREN Aldeko Plataformak martxoaren 7an eginiko bileran, Tolosaldea, Goierri, Sakana eta Lautadako biztanleei dei bat egitea erabaki zen, Etxegarateren obren atzerapena dela medio jarrera aktibo bat hartu zezaten, eta Plataforma bera gizartera zabaltzeko asmoa agertu zen. Hau guztia jakinik, nola ulertzen da, urriaren 15ean Goiekiko egoitzan garraiolarien sindikatueta Gupuzkoa, Nafarroa, Araba eta Bizkaiko ordezkariak Etxegarateko Plataformara etorri, eta EAKo ordezkariak, bertan lekuri ez zeukatela esan, eta sartzen ez uztea? Ez al da ba komeni Etxegarateren bikoizketaren beharraz indarra egiteko, ahalik eta sektorerik zabalenetako jendea egon, eta indar hori agertaztea? Guk HBTik hala uste dugu. Etxegarate bikoiztua ahalik eta azkarren ikusi nahi dugu, eta horren alde lana egiteko prest dagoen edonork (maila pertsonalean edo erakunderen baten ordezkaritza) dauka lekua borroka honetan, eta Plataforma honetan. Berdin digu beste gai batzuetan duen iritzia edo kolorea.

EARTIK IKUSTEN DUGU Plataformaren iharduerarekin jabetzeko asmo bat dagoela, beren arduraduna den Irizar jaunaren ardurak garbitu, eta dinamikari beraiek nahi dutena adina bizi-kortzen ez utziaz. Ez gehiago eta ez gutxiago. Borondate ona badute benetan, zergatik itxi atea zuzenki inplikatu? Zergatik Plataforma instituzional bezala funtzionatu nahi, adibidez sindikatuak gaiaz oso sentsibilizatuak eta lanerako gogoz egonik? Talde denek lana egitea nahi bada, zergatik bilerak jarri, hauetariko batzuk etortzea ezinezkoa izango duten egunetan? Zergatik jartzen ditu, EAKo ordezkariak osaturiko mahaiak bilerak goizeko 10.00etan Plataformaren bilerak, aipaturiko jende honek guztiak parte hartzea oso zaila izango duela jakinik? Zergatik egon 1998ko aurrekontuaren eztabaidaren zain, oraindik ere beste batzuen artean Irizar jaunak borondatea baldin badu, gauza asko egin baldin badaitezke 1997an ere?

EZ ZARETE GARBI JOKATZEN ari. EAK bere iharduera politikoa-ekin, alkate eta zinegotziekin ‘Etxegarate Orain’ herri aho-tsari egin behar dio kasu, eta nondik hasia badauka, egoera honen errudun nagusienetarikoa bat etxean edukita. Gure ustez, Gipuzkoa eta Nafarroako Institutzio eta Arduradun nagusien aldetik Etxegarateren bikoizketaren gaiaren aurrean ezbetetze eta utzikeria dela medio, mobilizatzen hasteko garaia iritsi da, eta EAK orainartean PNVk egiten duen frenu lana egiten baldin badu, bere iharduera salatu beharko dugu, bai Plataformaren barruan, eta baita bertatik kanpora ere.

GUK HERRI BATASUNATIK, gure egiten dugu ‘Etxegarate Orain’ herri garraixiaren filosofia, eta hori hala izatearen alde egingo dugu lana, errudunak agerian utziaz, eta herriari erabakibide guztiak irekiz. Dena irabazteko daukagu oraindik.

ERREZETA



Mari Jose Aldasoro
Toki-Alai jatetxea
Arama

TXOKOLATE MOUSSE-a

Osagaiak: txokolatezko kobertura erdia, azukre-hautsa 100 gr., 8 arrautza, litro laurden bana esne eta esnegain-likido.

Txokolatea eta azukrea esnetan urtu. Hozten utzi. 8 arrautzen gorringoak, epel-duak, eta zuringoak, igotakoak, nahastu. Azkenik erdi harrotutako esnegaina gainerratu. Hozkailuan sartu eta zerbitzatzeko momentuan atera. Kopan zerbitzatzatu, esnegain-harrotu pixka batekin.



Etor Mendia
Kirol hezkuntzan
lizentziatua
Kemen KOZ

Uretero bezala gainean dugu Behobia-Donostia arteko lasterketa. Eta urtero bezala, batzuk prestaketa guttia behar bezala burutuko zuten bitartean, izango dira azken momenturarte "gogoratu" ez eta oraindik despistatu xamar dabilzenak ere. Azken hauentzako zenbait aholku:

Kontutan izan frogaren ezaugarriak: iraupen luzeko lasterketa bat da eta kontutan hartzeko zailtasunak ditu ibilbidean zehar. Mota honetako esfortzuek bihotzhodi sistemaren lan maila garrantzitsua eskatzen dute, eta ez ohizko kirolari baten kasuan ezinbestekoa izango da mediku azterketa sakon bat egitea lasaitasun osoz

AHOLKUA

Behobia Donostiari begira

aurre egiteko frogari.

Alperrikakoa da azken astean Behobia bat prestatu nahi izatea: azken asterarte ezer egin ez eta frogan parte hartu nahi duenak, hobe izango du azken astean alferrik nekatzen aritu gabe ondo deskantsatuta joatea lasterketara. Eta entrenatu duen jendeak ere lasaitasunez hartu behar du azken astea ahalik eta deskantsatuen iristeko.

Entrenamendu saioekin batera luzaketa ariketak egitea oso gomendagarria izaten da.

Pertsona bakoitza beste-ekiko desberdina den bezala, bere entrenamendua ere berari egokitua izan behar da, eta batentzako egokia dena kaltegarria izan daiteke beste batentzako.

Ez da gomendagarria beraz, batere oinarririk gabe ko pertsona bat entrenatua dagoen batekin elkartzea aste batean lasterketa prestatzeko.

Prestakuntza gabe Behobia egin behar duenak jakin

beza iharduera fisiko hori kaltegarria gerta dakiokela osasunarentzako, eta hau jakinda ere aurrera jarraitzen badu, garrantzitsua da norberak bere lasterketa burutzea bere gaitasunen mailan, beti ere gauza patxadaz hartuz.

Ez da komenigarria azken momentuan ohizko ohi-turak aldatzea (elikadura, azken eguneko gosaria...)

Prestaketa maila baxua denean, lasterketa aurreko beroketa luzaketetan oinarrituko dugu bereziki, korrikarik egin gabe ez nekatze arren, eta irteera oso lasaia egin beharko da pixkanaka norberari dagokion erritmoa hartu arte.

Oso garrantzitsua da ibilbidean ezartzen dituzten puntuetan likidoa edatea (ura nagusiki).

Aholku hauek jarraitzeak ez du prestaketa eza ordezkatzeko, baina lagungarria izan daiteke Donostiara iristeko lehenik eta ahalik eta hobekien iristeko gainera.

OSKARBI
OINETAKOAK

De Alai
Motons

Kickers

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.

R.P.S. 213/97

Eskatu ordua: ☎ (929) 45 20 53 - 88 92 22

Oriamendi, 3 - 2. ezk. - **BEASAIN**

Inprimategia

EGUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 88 94 82
BEASAIN

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

HBren Mahai Nazionalaren alde

Urriaren 16an 4 orduko itxialdia egin zuten Ordizia-ko Barrenan, Goierriko ikastetxe ezberdinetako zenbait ikaslek, HBren Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa salatzeko. Arrazoi berberetatik, bihar eta etzi, akanpada egingo dute zenbait gaztek, Ordiziako Arboledan.

Goierriko arazo ekologikoak aztergai

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak antolaturik, 'Goierriko arazo ekologikoak' aztertuko dituzte, azaroaren 4an, arratsaldeko 8.00etan Udaletxeko Pleno Aretuan. Eguzki erakundeko partaide bat izango da hizlari. "Ataunen eta Ordizian etxola-hotelak egiteko proiektua dago; Zaldibian urtegia; Ezkio-Itsason Abiadura handiko trenaren geltokia; Zegama eta Ataunen Parke Naturalak; Araman araztegia edo depuradora... Euskal Herria hiltzen dute egunero, ekologiko-ekonomiko-sozial eta kulturalki", diote antolatzaileek.



Etxegarateko Plataforma berriro ere bilduta

Etxegarate Bikoiztearen Aldeko Plataforma urriaren 15ean bildu zen berriz ere. Jose Julian Irizar Garraio eta Errepide diputatuak Etxegarateren bikoizketa 2001. urtean amaituko dela esan du. Plataformak Etxegarateren bikoizketa aldarrikatzen jarraituko duela berretsi zuen, Plataformaren beharra behin eta berriz azpimarratuz. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1998ko aurrekontuak onartzerakoan Plataforma osatzen duten eskualdeetako biztanle guztiei adi egoteko eskatu zien, "Etxegarateko mendatea bikoizteko borondatea dagoen edo ez egiaztatzeko". Era berean, Eibar-Gasteiz eta Etxegarateren bikoizketarako, aurrekontuetatik banakako partidak ezar daitezela eskatzen dugu". Diputazioak 4.000 milioi izendatu ditu datorren urterako, bi lanentzako. Hala jakinarazi zien behintzat, Plataformako kideei Diputatu Nagusiarekin, Roman Sudupe eta Jose Julian Irizarrekin egindako bileran.

Gipuzkoako biztanleen artean azterketa bat burutzen ari da Plataforma. Gipuzkoarren % 88,2a Etxegarate bikoizketaren alde dago eta % 53,32ak Aldundiak Etxegarateren bikoizketa Urbina-Maltzaga baino lehenago egin behar dela uste du, aurkakoa % 17,85ak aipatuz soilik.

Uda aurreko Plataformaren azken bileratik Goierriko EAJko alkateek (Beasain, Lazkao, Legorreta, Ordizia eta Ormaiztegi) Plataforma utzi egin zuten. Ordizia eta Lazkaoko Udaletako ordezkariak azken bilera honetan parte hartu zuten, Udalbatzek horrela erabakita.


Mondeju lehiaketa

Urriaren 26an Zaldibia ospatu zen mondeju lehiaketan, Eñaut Hernandez eta Aloña Jauregi bikotea izan zen irabazle. Bigarren postua, Ordizian bizi den Josefa Armendariz zaldibitarrek lortu zuen.

Aralarko artzainen gazta lehiaketa, berriz, Zezilio Goñik irabazi zuen. Bigarrena Maria Jose Amenabarri izan zen.

Goierri mendiz-mendi

Goimenek, Goiekik eta Gipuzkoako Mendi Federazioko Mendi Ibilbide-batzordeak elkarlanean, 'Goierri mendiz-mendi' liburua kaleratu dute. Goierriko 53 ibilbidez osatua dago liburua. Bi helburu ditu: "Bertako biztanlegoari, normalean herri bertatik abiatuta, nekazaritza mundua eta bere ingurua hobeto ezagutzeko aukera eskaintzea; eta mendikoak gehiago diren eta herrigunetatik aldenduak dauden ibilbideak jasotzea, Aralar eta Aitzgorri mendikatetan sartzen direnak". Hurrengo GOIERRITARRAn informazio gehiago.



TXINDOKI TABERNA



- ✖ Pintxo bereziak
- ✖ Ogitaratekoak
- ✖ Plater konbinatuak



- ✖ Eguneroko menua
- ✖ Karta
- ✖ Ospakizunetarako menu bereziak

☎ 88 40 49

Etxezarreta, 3

ORDIZIA



Arg.: Juanxo Uruñe.

'Loinatz-97' konpaktoa aurkeztu da

Urriaren 16an aurkeztu zen 'Loinatz-97' konpaktoa. Loinazko San Martinen IV. mendeurrenaren omenez, Beasaingo musika taldeek osatutako lana da, Jose Agustin Olano txistulariak koordinatua. Grabazioa Usurbe Antzokian eta Lagin estudioetan egin da. 13 kanta grabatu dituzte herrian oso ezagunak diren musika-taldeek: Loinazko abesbatza, Loinatz Musika Eskolako banda, Beasaingo Udal txistulari banda, Loinatz Musika Eskolako akordeoi-orkestra, Koskola txaranga, Koldo eta Arantxa Iparragirre anai-arrebak eta Loinatz Musika Eskolako trikitixa taldeak. Aipamen berezia egin diete Aitor Gaston eta Alberto Almendrori (tronpetak), Xabier Sarasolari (organoa), Pello Irizar eta Andoni Sarriegiri. Argitaratzailerak akats bat zuzendu nahi izan dute. Loinatz abesbatzak kantatutako 'Loinaztar Martin Deunari abestia' Ramon Aranbururena dela azaltzen da. Aranbururena ez baina, Pedro Jose Iguainena da.


● Alaitz Sarasola eta Irati Goikoetxea sarituak

Urriaren 26an banatu ziren Orexan, Orixe X. bertso-paper lehiaketako sariak. 14 urtekoen artean, Irati Goikoetxea beasaindarra izan zen irabazlea, 'Mur, bir, ber' lanarekin. 15-20 urte bitartekoan atalean, berriz, Alaitz Sarasola ordiziarra izan zen saritua, 'Leioatio Goierria' gaia hartuz. Ordiziako bertso-eskolako ikasleak dira biak. Zorionak!



● Euskal Herriko Bertsolari txapelketa

Iñaki Muruak finalaurrekoetarako txartela lortu zuen urriaren 16an Iruñean jokaturako saioan, 730,5 punturekin Jose Ramon Elortza ormaiztegiarra Ondarruako saioan aritu zen. Hirugarrena izan zen 683 punturekin. Asteburu honetan gainerako 3 goierritarren txanda izango da. Bihar, azaroak 1, Mikel Mendizabal eta Joxe Munduate arituko dira Getxon. Aitor Sarriegik, igandean, azaroak 2, hartuko du parte, Zaurutzen. Bi saioak arratsaldeko 5.00etan izango dira.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan


Larunbat arratsaldez irekita

Erakusketako ☎ eta faxa: 889113 - ☎ mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

BEASAIN



**Proba itzazu
"Beasaingo
Martintxoak"**

Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN

AZKEN 2 TXALET SALGAI

IDIAZABALEN

PREZIO INTERESGARRIA

☎ **18 71 00**

MARTIN MENDIZABALEK SAN MARTINI BURUZKO LIBURUA KALERATU DU:

Igartzako Santu ezezaguna: Loinazko San Martin

Martin Mendizabal frantziskotarra 'Gipuzkoar ezezaguna Loinazko San Martin Amunabarroko semea. Martirioaren IV. mendeurrena 1597-1997' liburu mardula aurkeztu berria du, 'Beasaingo paperak' atalaren barruan. Loinazko San Martinen bizitza biltzen da liburuan. Baina horretaz gain, San Martinen garaiko Beasain bera, giroa, bizimodua... nolakoa zen isladatu ditu.

Gipuzkoan dagoen dokumenturik zaharrena (Olazabalgo San Salvador San Juan de la Peñari ematen zaion garaikoa) oinarri harturik hasi da Martin Mendizabal frantziskotarra Loinazko San Martin eta bere ingurua aztertzen. Hiru Jauntxoren izenak azaltzen omen dira: Lazkaoko Eneco Lúpiz, Loinazko Nunuso Narriateç eta Ormaiztegiko Gomiç Fortíniç. 1053. urte inguruko datua da hori.

Garai hartan Nafarroako erresumakoa zen Gipuzkoa. Ez zegoen herririk, biztanleak "bailaraka edo udaletxeka" eta "Agirre"ka edo auzoa osatzen zuten etxemultzoko zenbatzen zituzten. Bertako jaunak Nafarroako erregearen ordezkari ziren; gaztelu txikitik babesturik, herritarren artean bakea mantentzea, agian justizi lanak egitea, zergak biltzea eta, gerrarik izanez



Zaldibian jaioa da Martin Mendizabal, 2 urterekin Ordiziara bizitzera joana. Historialaria da bera. San Martin baselizan fraile izana. Gaur egun Arantzazun dago. Liburua bost urtetan zehar egindakoa da.

gero, lantzariak erreklutatzeari izango zen. Badirudi jaun horien gainbehera Gipuzkoa Gaztelaren eskumenera igarotzearen ondorio zirela.

'Gazteluak' Gipuzkoan, edo baserri edo toponimo huts dira; galdutako zerbaitei oroigarri direla erakusten du horrek. 'Dorre' hitzak, ordea, industri arora arteko aitoren seme pribilegiatuen gotorlekuak eta oinetxeak adierazten ditu. Bi aro ezberdinen ordezkari dira: gazteluak nafarrak izan ziren eta dorreak gazteluak.

Loinazko jauna Loinazko gazteluan bizi zen. 1053. urtean bazen Loinazko jauerrerria. Gaur egun 'Errekar-te' baserria dagoen lekuan zegoen. Loinazkoak zuen garrantziaren adibide da, Gipuzkoan ezagutzen diren lehen ferietariko bat, Loinazko ermitaren inguruan egiten zela.

Igartza

Gipuzkoak Gaztelarekin bat egin zuenekoak da Igartzako

dorretxea. Gartzi Lopez Lazkano eta Igartzako Marina izan ziren sortzaileak. "Bide nagusia zen Igartzako zubia, bertan elkartzen ziren bide guztiak. Bide horiek behar bezala babesteko dorrea jarri zuten. Bakar-dadean zegoenez, Dolarea (benta) jarri zuten. Gero harritzko zubia eraiki zuten, erreka handia zen. Zubia pasatzeagatik zerga ordaindu behar zen 1484rarte. Gaur egun Indar dagoen lekuari 'peategia' esaten zioten, peajea ordaintzen zen tokia", laburbildu digu Martinek. XII. mendeaz ari gara hizketan. Hurrengo orrian duzue Igartza inguruko berri zehatzagoa.

Garai hartan Loinazko gaztelua baserri izatera pasatu zen. Igartza bera, Beasain baino garrantzitsuagoa zen garai hartan.

San Martin

Testuinguru honetan kokatu behar da Loinazko San Martinen jaiotza. 1566ko uztailaren 16an jaio zen Amunabarro baserrian. Joan Gartzia Loinazko eta

Mari Martin Amunabarrokoaren semea. 9 anai-arreba ziren. San Martin zen senideen arteko mutilik zaharrena eta baserriaren oinordetza berari zegokion. Apaiz egitea erabaki zuenean, uko egin zion San Martinek oinordetza horri.

Mendizabalen liburuan zehatz-mehatz azaltzen ditu Amunabarro baserriaren xehetasunak. Lurrak, ganaduak, herentziak, doteak... Horrekin batera, Beasainen zeuden baserrien eta bakoitzaren ondasunen berri ere ematen du.

San Martinen ezaugarri fisikoak eta izaera ere nolakoa zen azaldu digu liburua egileak. "Ile gorri-ka zuen, azal zurikoa, adimen handikoa, hizkuntzak ikasteko erraztasun handia. Unibertsitatean ikasi zuen gaztelera, hara joan aurretik euskara eta latina besterik ez zekizkien. Askok irakurtzen zuen. Despiatua zen, trebetasunik gabea, narratsa. Eskerronekoa. Dialektikarako buru argia. Jakintsua zen baina herri xumeak ondo ulertzeko moduan hitz egiten zuen".

Unibertsitatera

1583an Alcalá de Henaresko unibertsitatera joatea erabaki zuen San Martinek. Garai hartako Europako unibertsitate ospetsuenetarikoa zen. Arte ikasketak hasi zituen. Ikasketak burutzeko beka ere lortu zuen. "Horrek esan nahi du gaiak oso ondo menderatzen zituela". Apaiz izateko bokatzea pizten joan zitzaion eta unibertsitatea utzi zuen. Horrela, Auñongo komentuan sartzea erabaki zuen,

1585ean. Frantziskotar bilakatu zen. "Unibertsitateko bigarren maila bukatzerako fraile sartu zen, ikasketa guztiak utzita. 18 urte besterik ez zeuzkan. Inori ez zion baimenik eskatu horretarako". Madrilera itzuli zen berriro, apaiz izateko ikasketak egitera. 1590ean, 25 urte zituela egin zen apaiz, Teologia ikasketak burutu ondoren.

Misiolari

"Amerika aurkitu berria zen eta jendea behar zen herri berrietara joateko. Japoniarako grina zuen San Martinek hasiera-hasieratik. Misioetara joateko bertako hizkuntzak ikasteko gaitasuna eduki behar zen. Gazteak behar zituzten. Apuntatzen zirenetik, Sevil-lara joan, itsasuntzia aurkitu eta Ameriketara joan arte, hilabeteak pasatzen zituzten. Eta Ameriketatik Filipinetara joateko, beste 4 hilabete". Tarte horretan irakasle lanetan aritzen zen San Martin. Bitxikeria bat: Mexikotik Acapulcora dau-den 364 kilometroak egin zituzten, 1593an.

Filipinetara, Manilara, joan zen lehenengo misiolari San Martin. 4 erakunde erlijioso zeuden: Domingotarrak, Agustindarrak, Frantziskotarrak eta Jesuitak. "Jesuitekin ez ziren ondo moldatzen. Sortu berriak ziren eta beraien asmoa irakaskuntzan murgiltzea zen. Frantziskotarrena, berri-z, batez ere behartsuak eta gaixoak zaintzeaz arduratzen ziren. Jesuit gehienak portugaldarrak ziren", dio Martinek. Filipinetatik Japoniara joan zen.

Misiolariak bazuten arazo bat: "Garai hartan per-sona batzuk konkistatzaile



1877. urtearen amaiera aldera erre egin zen San Martin jaio zeneko etxea, Amunabarro. Gela bat bakarra dago gaur egun zutik. San Martin beatifikatu zutenean, 1627-07-19an, oraindik bizi ziren santuaren lau arrebe-kapera bilakatu zuten. Gaur egun al-darea dagoen lekuko ermitaren barruko aldea zen gela hura.

bezala joaten ziren eta bes-teak misiolari bezala. Misioliariengandik askotan esaten zen, konkistatzera zihoazela. Lehenengo misiolariak bidaltzen zituztela lurralde berria ikustera, atzetik soldaduak etortzeko. Gezurra esaten aritu ziren".

Bai Filipinetan eta bai Japonian, ospitaleak eraiki zituzten frantziskotarrek. Japonian giro txarra omen zegoen. "Gaixorik zegoena edo ahula zena etxetik kale-ra botatzen zuten. Hotzaga-tik hiltzen ziren asko. Misioliari-ek pertsona hauek bil-tzen zituzten. Arrakasta handia izan zuten. Etxez

etxe arroza eskatzen zuen. Beste batzuek doktrina prestatzen zuten... Nahiago zuten kristautasuna zabal-tzea dirua irabaztea bai-no", dio Martinek.

Portugaldarren eta espai-niarren arteko borroka ere bazen garai hartan lurralde haietan. Merkataritzak gar-rantzia handia zeukan. "Ekonomiari dagokionez, mundua non bukatzen zen ez zekiten. Japondik, Filipi-netara, gero Mexikora eta handik Europara, itsasun-tziz, urtebetean egiten zen, Txinan salerosketak eginda. Bide hori garrantzitsua zen, bestela Afrikatik bueltan egin beharko baitzen", dio

Igartzakoa naiz Tolosatik 4 legoatara

Polemikak baztertu egin nahi izan ditu Martinek. Beasain-go ala Bergarakoa ote den. Mendizabalek, San Martinek berak idatzitako kopia bat oinarri hartuta, Igartzakoa, Bea-saingoa zela garbi uste du Mendizabalek. San Martinek idatzitako kontakizun original baten hiru kopia daude, por-tugesez Makaon egindakoak. "Santuak adierazitako topo-nimoa falta da Londresko kopian, baina ez kopiatzaileak tre-beak ez zirelako, izena arrotza zitzaielako baizik". Men-dizabalek bi laburpen azaltzen ditu liburuan. Batean 'Ygra-za' jartzen du eta bestean 'Igrasa'. Bietan ere, "Tolosatik, gure aita Francisco Tolosaren herritik, lau legoetara da-goeneko bizkainoa" jartzen du. Frantziskotarrak liburuan zehazten duenez, Ibarrangelu, Tolosatik 100 kilometrorra baino gehiagora dago, eta Bergara, Tolosatik 40 kilometro-ra baino gehiagora.

Martinek. Portugesez fran-tziskotarrak Nagasakitik (Japonia) bidali egin nahi zituzten, "komertzio aldetik ez zuten nahi espainiarrak Japonen izaterik". Errege arteko borroka ere bazen.

Gauzak honela, egoera hartan, frantziskotarrak atxilotu, Meakotik Nagasa-kira eraman, eta 1597ko otsailaren 5ean, asteazke-nez, 25 lagunekin batera gurutziltzatu egin zuten Loinazko San Martin, goi-zeko 10.00ak eta 11.00ak artean. Martiriak herrialde ezberdinetakoak ziren. Martiri guztien berri zeha-tza ere ematen du Mendiza-balek liburu honetan.

Santu egitea

Loiolako Inazioarekin bate-ra, aldareetara iritsi den san-tu gipuzkoar bakarra da San Martin. Mendizabalek ez dio hainbesteko garrantzia-rik eman santu egite honi. 1627ko uztailaren 19an egin zuten santu Loinazko San Martin. Beasaindarrak santua gurtzen hasi zireneko bitxikeria gogoratu nahi izan du Mendizabalek. "San Martin santu egin zu-tenean, parrokiari baimenik gabe jarri zuten aldarean. Gotzainak kentzeko agin-dua eman zuen. Santua kentzen ari zirela, elizan ikasle bat sartu zen eta su edo gerra kanpaiak jo zi-tuen eta herritar guztiak han etorri omen ziren ar-mak hartuta. Kentzen ari zi-renak kartzelan sartu zituz-ten. Apaizak, Antzizarkoa bera, esan zion gotzainari: hemen ez dago Aita Santuak aldarean jarritakoa kendu-ko duen gotzainik. Burgo-sen prozesua irabazi egin zuten beasaindarrek. Libu-ruan azaltzen da prozesu osoa".

Igartzako monumentu multzoan ibilbide turistikoa

Beasaingo Igartzako monumentu multzoa oinarri hartuta, ibilbide turistikoa prestatu da. Urriaren 24an izan zen inaugurazioa. San Martinen garaian ere garrantzi handia zuen Igartzako monumentu multzoa, Gipuzkoan gelditzen den era honetako monumentu bakarra da.



IGARTZAKO JAUREGIA-DORRETxea (XIII-XVI mendeetako)

Hasiera-hasierako dorretxea, seguraski, XIII. mendean eraikia zatekeen, zubiko pasagunea eta Oria harana zeharkatzen zuten bide garrantzitsuak zaintzeko. Igartzatik oso hurbil, Antizar baserriaren ondoan, bat egiten zuten Gaztelatik, Atlantiar Europarako bidean, Gipuzkoa zeharkatuz, zetozen bi galtzada nagusiek. Dorretxearen ondoan ibaiak emandako energia hidraulikoaren inguruan azpiegitura industrial sortu zen (burdinola eta errota), benta eta dolarea nekazaritza eta artisautza-arlo zenbait etxerekin batera. Igartzako jauregiak Lazkaoko etxean du bere noblezi jatorria (Oinaztarra beraz) eta Gartz Lopez Lazkaoko (Oinaztarren buruzagiaren

4. semea) eta Marina Igartzakoarekin izan zuen hasiera XIV. mendean bigarren zatian (1370 aldera). 1420an, Lazkaoko Jaunak Igartza eraso zuen kalte ugari sortuz eta 1457an Gipuzkoako Hirien Anaidiak, Enrike IV.aren laguntzaz, lurraldeko dorretxe ugari erauzi zituen, horien artean Igartzakoa. 1460 aldera berriro jauregi moduan eraikia izan zen. Igartzako jauregiaren neurriak, barruko patioak eta patioaren inguruko antolaketa Errenazimendu garaiko jauregien ezaugarri dira. Barruko patioa aparta da eta Gipuzkoan bakarra.



ERDI AROKO ZUBIA (XIII-XVI mendeetako)

Jatorrizko zubia seguruenera XIII. mendeko 2. zatian eraiki bazen ere, egungo bizkargain formako profilak eta zubi-bularrak XVI. mendean eraiki zela adierazten dute. Zubia Erdi Aroaren hasieran zegoen bide-azpiegituraren lekuko dugu. Igartzan bat egiten zuten Gaztela eta Europa Atlantiarra lotzen zituzten bi galtzada nagusiek: San Adriango kobazulotik behera Segura zeharkatuz zetorrenak eta Leintz eskualdetik Arlabango portua gainditu eta Zumarragan zehar zetorrenak. Horretaz gain,

Igartzako zubitik Iruñetik Bizkairako bidea igarotzen zen. Igartzako Jaunak zubia gurutzatzeagatik, 1484ra bitartean, zerga kobratu zuen.



DOLAREA BASERRIA (XVI. mendekoa)

Bidaiarientzako benta moduan erabiltzen. Zubiaren ondoan eraiki zuten, jauregiaren babesean.

IGARTZAKO BURDINOLA (XIV-XV mendeetako)

Igartzako Burdinola Nagusia bere garaian Gipuzkoako garrantzitsuenetakoa izan zen. Errotatik zertxobait beherago dago eta errotako ur-jauzi eta azpiegitura hidrauliko berbera probetxatzen zituen. 1855era arte aritu zen lanean. Gaur egun, azken zatia eta antepara dinteldunak bakarrik diraute zutik. Arku handiak bista-bista-koak dira. Bertatik sartzen ziren anteparako jarioak edota auspoei eta mailuari eragiten zizkien gurgilak konpontzera. Azpimarratzekoak dira ura gordetzeko erabiltzen zen antepara osatzen zuten harri erraldoiak. Anteparak 18 metroko luzera du eta ikaragarriko harlauzaz egina dago (2,24 m. luzeran, 0,60 m. zabaleran eta 0,30 m. lodieran), eskuz landuak eta bata bestearen kontra akatsik gabe jarriak urak alde egin ez dezan. Hauxe da, hain zuzen ere, burdinola benetan antzinakoa dela frogatzen duen ezaugarrietako bat.


an. Baserriaren egitura eta neurriek parean dagoen jauregia gogorarazten dute, nahiz eta seguruenera jauregia bera eta zubia baino zertxobait beranduagokoa izan. Baserriaren izenak berak adierazten duen bezala (dolara = tolara), sagardoa egiteko dolarea ere bazen bertan. Gaur egun baserria bihurtua dago.



ERROTA (XV. mendekoa)

Errota XV. mendeko 2. zatian koka daiteke. Gaur egun geldia badago ere, 1980 urterarte lanean aritu zen. Bere neurri apartek, lurraldeko ibai nagusienetarikoa baten ondoan egoteak eta lanerako hiru harri-bikote edukitzeak, Gipuzkoako errotarik garrantzitsuenetako izan zela adierazten dute.

Joxe Angel Munduate: "Goierri ez dago pipermina landatzeko tradiziorik"



laberriako
Errekalde
auzoko

Bengoetxegarako baserrian bizi da Joxe Angel Munduate gaztea. 1995. urtean hasi zen piperminak landatzen andregaiaren aitzak animaturik. "Berak gogoa zeukan piperminak landatzeko eta lursailik ez zuenez proba egin behar genuela esan zidan, orduan hasi ginen eta gaur arte".

Landarea Ibarrik ekartzen dute eta Olaberriako sorozan landatu. Aurten hektarea bateko sorozan 30.000 landare jarri dituzte eta 12.000-15.000 kilo inguru jaso dituzte. Zulo batean bi landare sartzen dira. "Landarea maiatzean landatzen da San Isidro aldera, ongi zaindu ondoren uztailaren erdi aldera hasten gara pipermina jasotzen. Abuztu hasieran hasten da landarea pipermin gehiago ematen eta urri erdialdera arte jarraitzen dugu pipermina jasotzen. Urrik maiatza bitartean lursaila deskantsatzen egoten da", dio Joxe Angelek.

Pipermina jasotzen den heinean enbotatu egiten da, hiru pote ezberdinetan. Piperminak eskuan jartzen dira ilaran eta mordoxka bat lortzean potean sartzen dira. Piperminei esker 20 edo 25 lagun aritzen dira lanean Bengoetxegarako baserrian, batzuk piperminak ja-



Orain dela 25 bat urte Beasaingo Salbatoren Etxeberria batek sartzen omen zuen pipermina pote handitan, astean bi trailer-kada. Arg.: Javier Fernandez.

sotzen eta beste batzuk piperminak poteetan sartzen. Ondoren Joxe Angelek berak jartzen dizkie tapak poteei, baina hori egin baino lehenago ozpina botatzen die. "Pote guztiak nire eskuetatik pasatzen dira eta hori garantia handia da niretzat. Ozpinak azukrea eta gatzak darama eta poteei ozpina jartzen diet gainezka egin arte, azkenik tapa jartzen delarik. Tapak jartzeko badago makina bat baina guk ez dugu erabiltzen, beraz dena eskulana da. Produktua enbotatu ondoren hilabete eta erdi edo hilabete pare bat utzi behar zaie pixkat egiten, bestela berri zaporea izaten baitute", azaldu digu olaberriarrak.

Eguraldiaren eragina

Piperminak eguraldi ona behar du, bero handia eta garbia egon dadila zerua. Baina ura ere behar du, beroa eta ura. Lokatza ez du izan behar baina hezetasun asko behar dute. Joxe Angelen ustez aurtengo landarea ez da ona atera. "Landarea aldatu eta bi egunera

euri asko egin zuen. Hamabost egunera ere euri asko egin zuen, ondoren hotzak hasi ziren eta golpean beroa etorri zen. Kontraste horrekin lurra gogortu egin zen eta landarea oso gaizki jarri zen. Horren ondorioa abuztuaren azkeneko egunetako ematea izan da, honela landarea uztailaren 20rako edertu partez, San Joan Txikitarrakoa edertu zen. Hala ere abuztuko pipermina bezalakorik ez da izaten urrian, izan ere bero gutxiago egiten du, hotz gehiago eta eguzkiak ordu gutxiagotan jotzen du".

Piperminetan espezializatzeak ere arriskuren bat izan dezake. "Arriskua dago kazkabarra bota eta landare guztia txikitzen badu. Ekaineko lehenbiziko egunetan puskatuko balu, berriro aldatu ahal izango litzateke baina San Joanetan edo uztailaren leheneko egunetara aldatu. Hala ere, 4 hilabetetan jasotzen den produktua zaila da eta hilabete horietan beti txarra egitea".

Ibarriko labela

Uda honetan lortu du Olaberriko piperminak Ibarriko labelean sartzea eta horrek exijentzi asko suposatzen dizkio Joxe Angele. "Piperminak tamaina bat izan behar dute, lodiera bat, kantitate jakin bat, txurtenak ezin ditu puskatuta eduki eta azterketak egiten dizkiete piperminei". Piperminen aukeraketa berak egiten du eta ondoren Eusko Jaurlaritzatik datoz piperminaren kalitatea zein den ikustera. Konpetentzia Ibarri bertatik dator, "Nafarroako pipermina bastoagoa da, handiagoa eta errioxarra deitzen diote", dio Joxe Angelek.

Salmenta

Pipermin gehienak banatzaile bati saltzen dizkio Joxe Angelek eta banatzaileak Gipuzkoa, Bizkaia, Bartzelona, Madril eta beste herri batzuetara saltzen ditu. Joxe Angelen ustez ondo saltzen da pipermina, "badaude zonak ez dela asko apreziatzen, jendea merke erostera ohitua dago eta pipermin hau garestia iruditzen zaio. Bizkaia aldean garestia iruditzen zaie". Merkatuan Olaberriko piperminak 425 edo 450 pezeta balio ditu eta Errioxakoak 100 pezeta inguru. Baina Joxe Angelen ustez oso ezberdinak dira.

Ordiziako azokara irailean joaten dira produktua erakusgai jartzera. Martxoan Bartzelonara joango dira Euroalimentariako azokara eta bertan piperminak erakusgai jarriko dituzte.

Nagore Goiburu

San Martin jaiak Ataunen

Urriak 31, ostirala:

16:00etan: Marrazki eta idazketa lehiaketa Joxemiel Barandiaran eskolan.

Azaroak 2, igandea:

11:00etan: Ataungo Hiru Auzoetako XVIII. Korrikaldia.

Azaroak 7, ostirala:

Koadrilen eguna:

12:00etan: Juntadizioa eta ondoren poteoa 'Agautza' trikitilariekin.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor jatetxean. Arratsalde, koadrilen arteko jokoak.

22:30etan: Bertso saioa Auzoeta Udal Kiroldegian: Andoni Egaña, Angel Mari Pelagarikano, Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Sebastian Lizaso eta Joxe Munduate. Gai-jartzailea: Jon Aizpuru.

24:00etan: Triki-ta-ke taldearekin dantzaldia.

Azaroak 8, larunbata:

Haurren eguna:

12:00etan: Herriko preso eta errefuxiatuen aldeko



zenbait ekintza Ezker Abertzaleak antolaturik: poteoa bertsolari eta txaranga-ekin, ondoren preso eta errefuxiatuen gurasoei omenaldia eta jarraian bazkaria Plazan.

12:00etan: Toka txapelketa, Atsedean tokian.

13:00etan: Haurren kalejira txaranga eta buruhaundiekin.

14:00etan: Haurren bazkaria Joxemiel Barandiaran eskolan.

15:30etan: Mus txapelketa-rako izen ematea.

16:00etan: Mus txapelketa Aizkoate elkartearen.

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Kiroldegian.

21:00etan: Herri afaria Bitor jatetxean. Mozorro gaua izango da.

24:00etan: Urgabe taldearekin dantzaldia. Goizaldera txokolate jana eta Matutina.

Azaroak 9, igandea:

Meza ondoren: herriko dantza taldea San Martingo plazan.

18:00etan: Jentilaren etorrera.

Ondoren: Mondeju jana.

20:00etan: Nahiko orkesti-

narekin dantzaldia. Afalondoren ere dantzaldiak jarraituko du.

Azaroak 10, astelehena:

12:00etan: Zinta karrera plazan.

17:00etan: Zinema saioa Oargin.

19:00etan: Trial-sin ikuskinguna, Udal kiroldegian.

Azaroak 11, asteartea:

San Martin eguna:

10:00etan: Trikitilariak kaletan zehar.

12:00etan: Meza Nagusia hildakoen alde.

Ondoren: Agirre eta Lizaso bertsolariak kalustran, eta ondoren salda beroa Atsedean tokian. Hemen ere bertsolariak izango dira.

14:30etan: Bazkaria Bitor jatetxean.

18:30etan: Pelota partiduak Auzoeta Udal kiroldegian:

Kadeteak: Dorronsoro-Gurrutxaga Mendizabal-Zubeldiaren aurka. **Afizionatuak:** Imaz-Ruiz Barandiaran-Garmendiaren aurka eta Berraondo-Idiakes Egimendia-Sukiaren aurka.

**TRIKITILARI
JATETXEA**

Eguneroko menua

Festa zoriontsuak denoi!

☎ 18 00 19 ATAUN (S. Martin)

Agurtzane
Heapaindegia

Altzanipe, 2

Tfnoa.: 18 02 93

ATAUN (San Martin)

**ERAUSKIN
HARATEGIA**

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Mondeju beltzak
eta txorizoak

☎ 18 00 27 Helbarrena, 32

ATAUN

INAZIO GARMENDIA

Harategia

☎ 18 00 32

Dorronsoro-enea
ATAUN



**ZUBIKOETA
GASOLINDEGIA**

- Gasolina, gasoila A eta C
- Berogailuentzat gasoil banatzailea
- Autoaren garbiketa moeta guztiak

Zubikoeta industrialdea

☎ 18 04 87

ATAUN

ATAUN

Aurtengo denboraldian, Ataun Kirol Elkartean areto-futboleko 4 talde ditugu. Hauetatik birentzat dagoeneko denboraldia martxan jarri da, Gipuzkoa mailako txapelketan parte hartzen dutelarik. Beste biak, herri- oraindik jokatzeko hasi gabe daude.

Bigarren A kategorian, Ataun Urbieta taldeak hase-ra bikaina izan du, momentuz jokaturako 5 partidua irabazi baititu. Horrenbestez, sailkapenean lehen postuan daude. Bestalde, Bigarren B kategorian, Ataun K.E taldeak oraingoz 2 partidua irabazi, bat berdindu eta beste bi galdu ditu.

Aurten neska larrien taldea osatzerik ez da posible izan. Azken denboraldietan oso ondo ibili den taldea zen haxe, baina aurten jokalaririk gutxiegi zeudela eta, ez da

lortu talde bat ateratzea. Hala ere, honen ordeztu jubenilen mailan nesken talde bat izango dugu. Hauen txapelketa azaroaren 8an hasiko da. 4. taldea kadete mutilena da eta haxe ere azaroaren 8an ekingo diote denboraldiari.

Jubilatuak berriak:

"Bakoitzari berea, Jaungoikoaren legea" dio esatera zahar batek eta arbasoen jakinduriari kasu egitea komenidenez, hortaraxe nator. Aurteko alean jubilatuen inguruko berria ematerakoan egindako akatsa zuzentzea dagokit. Urriaren 11n izan zuten ibilaldi neurtuan, Atsedentokitik San Gregorioraino joan-etorrikoan, sailkapena haxe izan zen: Felix Eskisabel eta Martina Izagirre Bixente Goikoetxea eta Juani Dorronsoro Isabel

Arana eta Luisa Mujika Juanita Bikuña eta Maria Agirre.

Lau bikoteontzat sariak izan ziren eta gainera, irten ziren edadetuenek ere oroigarri bana jaso zuten: Benito Arruabarrenak (84 urte) eta Juanita Munduatek (77). Ibilbidean zehar indarberritzeko banatu ziren ura eta frutaz gain, merienda goxoa ere izan zuten partaideak.

Festetan ere izango dute tarte berezia jubilatuek. Azaroak 11 San Martin egunean, beraiei bereziki zuzendutako eguna izan ohi dute: meza, trikitilariak, bertsolariak, eguerdiko salda beroa eta ondorengo bazkaria.

Labur-labur

● Herriko dantza taldea berriro martxan jarriko da azarotik aurrera. Aurten ira-

kaslea Eider Garmendia izango da. Norbaitek parte hartu nahi badu, 6 urtetik aurrerako guztiak onartzen dira.

● Ingeles ikastaroa herrian: ingelesa ikastera herri-tarrak kanpora joaten zirela eta, zerbitzu hau bertan emateko beharra ikusi zuen Udalak eta horrenbestez, dagoeneko deialdia egin ondoren, 15 apuntatu dira, 3 taldeetan banatu direlarik. Agurtzane Bikuña herri-tarra irakasle dutelarik, hasi dira dagoeneko lanean.

● San Martinak gain-gai-near: ondorengo bi aste-bukaeretan festetan izango dugu herria bete-betean. Hiru auzotako korrikaldia, bertso-saioa; haurren eguna, kuadrilena, Jentilen etorrera... Ondo pasa!

Josune Aldabe

Bateak Taldea

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Hirigoi, 12 LAZKAO

Tfnoa.: 88 86 20 Faxe: 88 91 18

Tfno. mugikorra: 908 57 91 92

ANDRALIZETA



NEKAZALTURISMOA

Ostiraletik igandera mondejuak
jateko aukera

Nekazalturismoa eta
jateketa urte guztian
zabalik

☎ 18 00 87

ATAUN

Victor

*Ezkontzak
Jaunartzeak
Bataioak
Bazkari eta afariak*

Jatetxea

☎ 18 00 33 - 18 00 84

ATAUN

JOSUNE ARRAINDEGIA

☎ 18 03 67

Altzanipe

ATAUN (San Martin)

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin

ATAUN

☎ 18 03 45

ARAMA

Halaxe dator bai aurtengo jaietako egitaraua: bete-betea. Datorren ostiralean, azaroaren 7an, hasi eta San Martin egunerarte luzatuko dira. Jarraian duzue egitaraua, zehatz-mehatz. Ondo pasa!

Azaroak 7, ostirala:

20:00etan: Txupinazoa.



23:00etan: Alaitz eta Maiderrekin erromeria.

San Martin jaia bete-beteak datoz



Azaroak 8, larunbata:

14:00etan: 'Mutil zahar eta neska zaharren' bazkaria.

16:00etan: Mus txapelketa herrikoia.

19:00etan: Herriko trikitilariak.

23:00etan: Etzakit taldearekin erromeria.

Azaroak 9, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Soka-dantza.

13:00etan: Eskuzko pilota partiduak.

18:00etan: Martin Musika Eskolako trikitilarietako trikitixa emanaldia. Ondoren Erromeria.

Azaroak 10, astelehena:

20:30etan: Gaztina jana.

Ondoren: Erromeria Kristina eta Amaiarekin.

Azaroak 11, asteartea:

10:00etan: Alegiko txistularietako goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: V. Pala txapelketaren finala.

17:00etan: Toka txapelketa herrikoia.

19:00etan: Herriko trikitilarietako erromeria.

24:00etan: Suzirien azkeneko traka.



TOKI-ALAI JATETXEA

bataioak, jaunartzeak
bazkariak, afariak
eguneroko menuak

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibarrak errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzeak dira Apaiz etxea, Jriarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herriar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.

LEGORRETA

● Eskulan ikastaroa:

Udaleko Kultur-batzordeak Eskulan ikastaroa antolatu du Kutxa Fundazioaren laguntzarekin. Bi talde osatu-ko dira, bata astearteetan 17:30etatik 20:00etara eta bestea, ostegunetan, 15:00etatik 17:00etara. Ikastaroaren iraupen osoa 30 ordukoa izango da. Azaroaren 11n eta 13an hasiko dira, Kultur Etxean. Azaroaren 6an bilera informatiboa izango da Kultur Etxean bertan, 17:30etan. Matrikularen kostua 1.800 pezeta-koa izango da eta Udal-bulegoetan izena ematerakoan ordainduak izan beharko dute. Interesatuak Udal-bulegoetan eman beharko dute izena azaroak 6 baino lehen.

● Aerobic-a eta mantenimenduzko soinketa:

Bi adin taldeetan banatuko ditu Udalak ikastaroa:

- **55 urtetik beherakoentzat:** Bi ikastaro antolatu dira, bata aerobic-a eta beste mantenimenduzko soinketarena. Astelehen, asteazken eta ostegunetan izango dira Ugaro ikastetxeko soinketa-gelan. Azaroan hasiko dira, 1998ko apirilean amaitzeko. Matrikularen kostua hileko 1.500 pezeta-koa izango da. Udal-bulegoetan izena ematerakoan aerobic edo mantenimenduzko soinketa nahi duzun eta egokien datorkizun ordutegia adierazi beharko duzue. Urriaren 31n bilera izango da interesatu guztiekin, Udaletxeko Areto-nagusian, 19:00etan.

- **55 urtetik gorakoentzat:** Mantenimenduzko soinketa ikastaroa antolatu da. Ikastaroak adin nagusikoentzat zehazki pentsatutako programaketa izango du. Astelehen, asteazken eta ostegunetan.

netan izango da Ugaro ikastetxeko soinketa-gelan. Azarotik apirilera bitartean iraungo du. Matrikula, hileko 1.500 pezeta. Aldaieta elkarteak jubilatuen matrikularen % 50a ordainduko du. Udal-bulegoetan izena ematerakoan, bakoitzak

egokien datorkion ordutegia adierazi beharko du. Izena emateko epea azaroaren 5ean amaitzen eta 6an bilera egingo da interesatu guztiekin, Udaletxeko Areto-nagusian, 19:00etan, taldeen osaketa azterketa.

Josune Amondarain

Jotakea txapela

Eskuz binakako pelotari afizionatu eta kadeteentzat txapelketa antolatu du Kirol elkarteak datorren urterako ere. Herriko pilotalekuan jokatu-ko dira partidua, igande goizetan. Txapelketa maila bakoitzean bi talde osatu egongo da. Liga moduan jokatu-ko dute bikoteek. Talde bakoitzeko lehenengo bi bikoteak sailkatuko dira finalerdietara. Sariak: afizionatueta: Jotakea txapela eta 40.000 pezeta irabazlearentzat; bigarrenarentzat 20.000 pezeta. Kadeteetan: txapela eta kirol materiala.

Aurtengo txapelketari dagokionez, aurrera doa. Azaroaren 2an, goizeko 10.30etan hasita, kadeteen partidua izango da lehenengo eta ondoren Zubizarreta-Garmendia Ruiz-Gelbenzuren aurka eta Jantxo-Barandiaran Lujanbio-Zabalaren aurka. Azaroaren 9an, lehenengo kadeteen bi partidu eta jarraian Eizagirre-Urretabizkaia Orbegozo-Alvarezaren aurka. Finalerdiak abenduaren 28an jokatu-ko dira eta finala, urtarrilaren 4an.

OLABERRIA

Bihar larunbata, ospatuko da Santu Guztien eguna eta hori dela eta, hainbat ekitaldi izango da herrian. Eguerdian Meza Nagusia ospatuko da. Aurretik eta ondorenean, jende ugari bilduko da hilerrian hildakoak agurtzeko. Arratsaldeari dagokionez, 5.00etan, Picor antzerki taldeak 'Estofado de Toro' lana eskainiko du. Eguraldi txarra eginez gero, antzezlan pelotalekuan egingo da. 18:00etan, urriaren 12an eginiko argazki rallyaren sari-banaketa egingo da eta partehartzailen argazkiak ikus ahal izango dira Kultur Etxean. Guztira, 22 partehartzail

Santu Guztien egunean ekitaldi ugari

izan ziren, horietarik 5 herritarrek. Sari-banaketa eta argazki erakusketa eta gero, Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatzen duen 'Gaztaina jana' izango da.

Udal biltzarra

Urriaren 22an egin zen ohiko Udal Biltzarra herriko Udaletxean eta besteak beste gai hauek jorratu ziren:

- Kasko auzoan etxebizitza gehiago egiteko proiektua aurrera doa.
- Bikario-etxeko urbanizazioak 18.080.169 pezeta-ko kostua izango du.
- Santu Guztien eguna

pasa ondoren hilerria berritzeko obrak hasiko dira.

- Urbarandi mendian zegoen Arkurutzako hiliarria Donostiara eraman da errepika bat egiteko asmoz.

- Iaz onartutako arautegiaren arabera, euskarazko ikastaroetara joan direnei diru-laguntzak banatuko zaizkie.

- Honako elkarte ezberdinei diru-laguntza emango zaie: **Euskadi Txirrindulari taldea:** 25.000 pezeta. **Kilometroak:** 48.504.

- Hirugarren Munduko diru-laguntzei dagokienez: **Benin** herrialdera 750.000 pezeta bidaliko dira. **Boli-**

viara: 500.000 pezeta eta **Mugarik gabeko medikuak taldeari:** 433.000.

Udazkeneko ikastaroak

Udazken honetarako Udaleko Kultur taldeak honako hiru ikastaro hauek antolatu ditu: pintura, soinketa tera-putikoa eta taila ikastaroa. Pintura eta soinketa tera-putikoaren ikastaroak urriaren 20an hasi ziren. Lehenengo ikastaro honetan 10 lagunek hartuko dute parte eta bigarrenengoan 5ek. Taila ikastaroari dagokionez, esan, hau azaroan hasiko dela eta oraingo 11 pertsonen eman dute izena.

Nagore Goiburua

BEASAIN

Aitor Sarriegi bertsolaria taula gainean

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa martxan da dagoneko. Lehen errondako saioak jokatzeko ari dira, eta igandean (azaroak 2) Zarautzen jokatu denean Aitor Sarriegi izango dugu; bere lehen txapelketa nagusian, 20 urte besterik ez baititu gazte honek. Duela 2 urte Gipuzkoako txapelketan aritu zen finalerdietara iritsiz, eta horrexek eman zion Euskal Herrikoan parte hartzeko aukera.

Berarekin batera, igandean, ondoko 5 bertsolariak izango dira: Jokin Soroza-bal, Jesus Mari Irazu, Jon Maia, Bittor Elizagoien eta Jose Luis Urdangarin. Eta lan txukuna egitea da bere helburua: *"Nire burua ez dut presionatu nahi finalerdietan. saio ona egitea gustatuko litzaizkidan, akats gutxi-ekin, potori gabe. Eta hortik aurrerako guztia gustora hartuko dut"*.

Lehen kanporaketa honetan, 7 saio jokatu dira, eta saio bakoitzeko lehena eta beste 11 puntuazio altuenak sailkatuko dira finalerdietarako. Aitorren ustez, 690-700 puntu inguruan ibil daiteke sailkapenerako mugarria.

Zarautzen izango dituen bertsolagunekin gustora dago. *"Garrantzitsua da noizbait beraiekin kantatu izana, gutxi gora-behera nondik atera litezkeen jakitea. Bost hauekin dextentetan aritua naiz, eta abantaila hori izango dut. Gainera, nibe-ko jendea da, eta akatsik egin gabe beraiekin inguruan banabil eta saioa puntuazioz altu badoa... Hortxe egon liteke nire aukera"*.

Finalerdietako bat Beasainen jokatu da, eta sail-



katuz gero eta zozketak hala badio, herrian aritu daiteke: *"Gustatuko litzaizkidan, baina beste nonbaiten ere pozik kantatuko nuke. Sailkatzea da kontua"*.

Gaztea izan arren, sari ugari jasotako bertsolaria da. Bertso-paperetan 40 saririk gora ditu, eta bat-batean ere lortu ditu garaipen sonatuak: Lizardi saria (1992), Osinalde (1993). Gaur egun, bertsolaritza eta Informatika ikasketak batera daramatza. *"Biak lasai xamar. Bertso-tan nire kontura aritzen naiz urtean zehar. Eta orain, txapelketa atarian, gehixeago prestatzen hasi naiz. Horretarako, asteen behin Mikel Mendizabal eta Jokin Soroza-balekin biltzen naiz"*.

Bertso saioei dagokienean, aurtengoan gutxi xamar izan ditu. Orain bizpahiru urte gehiago aritzen omen zen, eta honen zergatia entzulegoaren gutxitzean dago: *"Puntako bertsolariak ere larri ibiltzen dira entzule kopuru dexente bat biltzeko. Eta honela, gazteoi aukerak ematea zailagoa da. Nire mailako jendeak dexente nabaritu du hau"*.

Dena den, telebista itzultzearekin batera, eta batez ere, Txapelketaren inguruan, hau guztia konponduko denaren itxaropena badu.

Udazken kulturala

Udazken kulturalak aurrera jarraitzen du ekitaldiz josirik. Honela, gaur gauean adibidez, 22:30etan, 'Chicos Mambo Show' taldearen antzerki lana izango da Usurbe Antzokian (800 pezeta). Eta bihar areto berean, Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoez, beraiekin 25. urteurrena ospatzen duen ikuskizuna eskainiko dute emanaldi bikoitzean, arratsaldeko 5.00etan eta 7.00etan (800 pezeta). Igande arratsaldean, berriz, Tirri-Tarra fanfarrea iango da San Martin plazan.

Aurrera jarraituz, astelehen, astearte eta asteazkenean ekintza berezi bat iritsiko da: magia ikastaroa. Ezkiaga Auzo-etxean arratsaldero, ordubetez, Tony magoak bere sekretu eta trukoak irakatsiko ditu. Izena emateko azken eguna gaurkoa da, eta horretarako Ezkiaga Auzo-etxera (16 10 24) jo behar da, arratsaldeko 5.00etatik 8.00etara. Beasaindarrek 500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta kanpotarrek 1.000.

Bestalde, asteazken gauean, 22:30etan, kafe-antzerkia izango da, Xebe Diez eta Teresa Lopez de Muniain aktore ezagunen eskutik, Teide kafetegian. Ostegunez, zine-kluba eta ostiral gauean, azaroak 7, 23:00etan, Benito Lertxundien kantaldia.

Larunbatean ekitaldi nagusienetarikoa bat iritsiko da, XII. Odolki dastaketa eta lehiaketa. Eta sona handia lortu duen ekitaldi honen aurretik, azoka berezia ere izango da plaza inguruan. Arratsaldez, berriz, Dantza Libreko lehiaketa jokatu da, eta gau partean eta eszenatokiz aldatu gabe, Furunda taldearekin dantzaldia.

Eta azkenik, Udazken kulturala itxiz, azaroaren 9an, igandean, Txistulari eguna iritsiko da. Goizean goizetik hasita, kalejira eta kontzertuak izango dira, herriko Banda eta Goierriko txistularien eskutik.

"Txapelketa interesgarria izango da. Atzetik jende asko dator, ezezagunak baina maila onekoak. Ezusteko ugari egon liteke". Ea horietako bat Aitorrek berak ematen duen, eta gutxienez erdifinaletan ikasteko aukerarik dugun; eta Beasain bertan izanez gero, oraindik hobeto.

Joste eta ebaketa

Udalak laguntzen duen Joste eta Ebaketa ikastarorako lekua geratzen dela jakinarazi digute. Klaseak astelehentik ostegunera izaten dira, egunero bi orduz eta ordutegi desberdinekin. Informazio gehiagorako edo izena ema-

teko, Urbi-Etxean dagoen Pilar akademiara jo.

Ongizateko ikastaroa

'Pertsona elbarri edota oheratuekiko arreta eta mugikortasuna' ikastaroa antolatu du Udaletxeko Gizarte-Ongizate sailak. Nola mugitu behar diren gaixoak, eta bizkarreko minik ez izateko, zeintzuk diren izan behar ditugun jarrerak erakutsiko dituzte. Ikastaroa azaroaren 17an hasiko da, 20 ordukoa. Izena emateko epea, azaroaren 3tik 13ra, 11:00etatik 13:00etara. 885904.

Aitor Arrue

IDIAZABAL

Zairen 26 urte lanean. Alejandro Aldanondo herritarak badaki ondo gabezia bititza zer den. Berez aberatsak diren herri horietan (Zaire inguruan petroleo eta mineral ugari dago) aurrera egin beharrean atzera urratsak eman dituzte azken urteetan herritar honen esanetan. Hau, eta askorentzat pentsaezinak ziren beste hainbat konturen berri eman du azken asteotan Alejandro Aldanondok herrian. Izaldarren erantzuna ere izan da: Zairera eramateko erropa eta bestelakoak bildu dira herrian astebetetz.

Alejandroren esanetan Zairen (azken hilabetetan izandako gatazka eta gero Congo izena hartu du berriro ere) eta inguruko herrietako gatazketan herrialde botere-tsuek interes ezutuak izaten dituzte. "Inguru hartan lehengai ugari dago, mineralak, petroleoa... horrelako aberastasuna badago kanpoko interesak handitu egiten dira. Kabila boterera iritsi denetik amerikarrak, ingelesak eta Hego Afrikakoek atera dituzte irabaziak". Alejandroren ustez herri horiek oraindik tribu mailatik

herri izateko urratsa eman gabe dute eta kanpotik oztopo asko jartzen zaizkie.

Bertako jendeari mota guztietako laguntza ematen die Alejandrok eta berarekin lanean ari direnak. Zaireko bizimodua gogorra da izal-dar honen esanetan. "Han ez dago hemengo aberastasunik eta bariataterik, distrazio falta handia dago, bideak ere oso txarrak dira eta guk konpondu beharra izaten ditugu". Denetik egin beharra tokatzen zaie egoera horri buelta emateko: ganadua gobernatu, zine emanaldiak antolatu...

Gobernuz Kanpoko Erakundeek (ONG-ek) lan handia egiten dute nazioartetik iritsitako laguntza banatzen Alejandroren esanetan. Laguntza ugari behar dute eta Idiazabaldik ez du esku hutsik alde egingo. "Udalak aurrekontuen %0,7 laguntzarako ematea erabaki du eta hortik zati bat ganaduak erosi eta aurrera ateratzeko erabiliko da, izalдарrei esker izango dugu ganadu sail berria jarri eta aurrera ateratzeko aukera". Horrekin batera herriko talde baten

Zaireko egoeraren berri



Kultur Astea

Artisau erakusketa eta paella erraldoia eginez hasitako Kultur Astea, asteburu honetako ekitaldiekin bukatuko da: **Urriak 31, ostirala:** Arratsaldean merienda, jolasak eta buruhandiak eskolakoentzat. **19.30etan** Juanxo Agirre Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak Idiazabalgo trikuharriei buruz hitz egingo du Kultur Etxean. **22.30etan** Oihulari clown antzerki taldeak 'Zai... beti zai' antzezlan eskaniko du Guraso Elkarteko aretoan. **Azaroak 1, larunbata:** Goizeko **7.00etan** herriko Mugarrien ibilaldia. Aranzadikoek bezperan azaldutakoa, trikuharrietan bertan erakutsiko da.

ekimenari esker Zairera eramateko erropa eta bestelakoen bilketa egin da astebetetz. Bildutakoak, Alejandrok bideratu eta banatuko ditu.

Pirineotara irteera

Kirol Elkarteko Mendi Sailak Zaldibiako Mendi Elkartarekin batera Pirineotara irteera antolatu du azaoraren 8 eta 9rako. 5.200 pezeta ordaindu behar da, langabetuek 3.200. Azaroaren 3rako

eman behar da izena.

Ikusentzutekoa

Azaroaren 6an, Javier Fernandez biologoaren 'Baso tropikala' ikusentzutekoa ikusgai izango da Kultur Etxean 19.30etan. Belize, Guatemala eta Costa Ricako erreserba biologikoak eta Parke Nazionalak erakutsiko dira.

Xabier Urteaga

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

PSIKOLOGI KLINIKOA



José Ramón Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

AURRE ZITA

☎ **88 72 21**

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

SEGURA

Txupete eta guzti eskolara



Ezkerretik eskubira: Ana Lekuona andereñoa, Aitor Imaz, Martin Diez, Iñigo Urbizu, Jon Gisasola, Xanet Imaz, Iñaki Elorza, Aimar Intxausti, Iñigo Garmendia eta Libe Orrigain. Falta direnak Janire Mantecon eta Miren Iñurategi.

Aurten 2 urte beteko dituzten 11 umetxoren borondatezko eskolaratzea, esperientzia berria izan da Laiotz Herri Eskolan. Irailaren 29an hasi baziren ere, urtarilerara arte egokitze faseetan arituko dira. Lehenengo 3 asteetan, 3 taldetan banatuta, orduerdiko txandak izan dituzte goizez. Urriaren 20an denak elkartuta, ordubetez ari dira orain. Egokitzea nola doan ikusita, 2-3 aste barru, 2 orduko saioetan hasiko dira urtarilerara arte. Azken 6 hilabeteetan, berriz, goizez eta arratsaldez bina ordu izango dituzte.

Talde honentzat gela bat egokitu dute beheko eskolatan, komunak bertan jarritz, zorua berrituz, jostailuz betetz eta apainketa berezia emanez. Karnele Aierbe eta Ana Lekuona irakasleek diotenez, lehenengo helburua, umeak gustora sentiaraztea da. Gelako baliabidez gozatuz, plastika, marrazkiak, jolasak, musika eta psikomotrizitatea lantzen dituzte batik-bat. Batzuk hobeto beste batzuk okerrago, poliki-poliki, ari dira moldatzen. Amaierarako helburua, ikastetxea gainditzea da, gelatik ateratzea, bertan lasai ibiltzea, gauzak kon-

partitzen ikastea eta azken batean, bizitzara irekitzeko lehen pausuak ematea. Datorren urterako, normalean eskolaratzen diren adinera, izugarritzko aurrerapausua emana izango dute irakasleen iritziz.

Zerkaldeko trabesia aztergai

Urriaren 18an amaitu zen Madurako bariantearen proiektuari egiteko alegazioen epea. Diputazioan bertan sartu direnetatik aparte, 11 heldu dira Udaletxera. Partikularrek eta talde politikoek egindakoez gain, lurjabeek, dendari-tabernariak, eta nekazariak egin dituztenak daude. Epe jakinik ez badago ere, Diputaziokoek banan-banan aztertu eta erantzungo dituzte.

Bestalde, Udalak eskatutako Axkueta aldeko Zerkaldeko trabesiaren txostena, plano, koste eta azalpen guztiekin, Udaletxean dago. Jermanenetik sartuta Malkorren aterako litzatekeen zeharbidea, plan espezialean azaltzen den aurreproiektuan oinarritua dago eta gauzatu duen enpresaren arabera, 275 milioiko aurrekontua izango luke. Madurako aurrikusten denak baino 125

milioi gutxiagokoa. Herriko 3 talde politikoak urriaren 29an ziren elkartzekoak Diputaziokoekin, hauek txosten honetaz duten iritzia jakiteko.

Azterketa arkeologikoak

Aranzadi zientzi elkartearen ardurapean, plan espeziala martxan jarri aurretik eginda egon beharreko prospekzio arkeologikoak hasi dira. Kasko historikoaren azterketa arkeologikoa 2 faseetan burutuko da. Urriaren 27an hasi ziren, beheko panaderikoek etxe aurrean duten terrenoaren zulaketarekin. Ondoren, beste 6 zulaketa egingo dituzte aurten. 2. fasean, 1998an, 9 prospekzio gehiago burutuko dituzte kaskoko punturik interesgarrienak izan daitezkeenetan.

Santu guztiak

Santu guztien egunean, aurrez errosarioa esanda, 17:00etan izango da meza kanposantuan. Azaroaren 2an, arimen aldeko meza 12:00etan emango da parrokiaren.

Momentuz martxan jartzeko planik ez badago ere, "Kendu" lantegi aldera dauden 7.200 m² lur erosiak ditu Udalak kanposantua handitzeko.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Infantil eskolarra: Beasain 3-0 Aizkorri. **Infantilak:** Eibartarra 0-1 Aizkorri. **Kadeteak:** Aizkorri 3-1 Zarautz. **Jubenilak:** Añorga 2-1 Segura. **Errejonialak:** Segura 0-1 Kilimon.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Idiazabal, zapatuan, 16:30etan. **Jubenilak:** Segura- Sto. Tomas, jaien, 16:30etan.

Labur labur

● Urriaren 17an, UZEI erakundeak, 20. urteurrena ospatuz, omenaldia egin zien bere sortzaileei. Erakundearen hasierako zuzendaria izan zen **Joseba Intxausti** herritarra izan zen omenduetako bat.

● Diputazioko subentzio bati esker, **herrian turismoa sustatzeko**, egunean 4 orduz eta 9 hilabetez, Mari Jose Insausti arituko da.

● Urriaren 24an, Errealaren 16 bazkide eta akziodun herritar elkartu ziren Zopajale Elkartean, **Errealaren peña** sortzeko asmoz. "Segurako errealzaleak" izenez, Eustakio Telleria izendatu zuten lehendakari, Mikel Areizaga lehendakariorde eta Gurutx Aldanondo idazkari. Orain, estatutuak egin eta peñaren aurkezpen ofiziala egitekoak dira

● Urriaren 24an ailegatu ziren, Gabonak ondorenera arte edukiko dituzten **sardin-zaharrak Antonkalenera**.

● Urriaren 31n irekiko dute **Jermaneneko estankoa**, lehengo lokala beste hainbeste handitu eta berrituta.

● Azaroaren 2an, kirol eskolarraren barne, goizeko 8:30etan plazatik irtenda, **mendi irteera** izango dute Erlo mendira

● Azaroaren 5etik abenduaren 17ra, Udalak antolatuta, **sukaldaritza ikastaroa** izango da Zopajale Elkartean. Osatua dagoen 20 lagunekoko taldeak asteazkenero, 15:00etatik 16:30etara izango ditu klaseak.

● Azaroaren 7an, 22:00etan, **VIII. Egin mus txapelketa** jokatu da Elorripe tabernan.

Joseba Telleria

ZEGAMA

Aitxuri herri-eskolaren inaugurazioa



Historiari begirada bat eman-
nez gero, duela 20 bat urte
eman ziren lehen pausoak
orain eskuartean dugun Es-
kola sortzeko. 1980.urtean
burutu zen Eskola Nazionala
eta Ikastolaren arteko fusioa;
une hartan hartu zen
erabakiari esker, ondorio
ezin hobeak izan ditu Zega-
mak eta batez ere zegama-
rrok. Garai hartan zeuden
instalakuntzak berehala txi-
ki geratu ziren eta urte asko-
an zehar banaketa fisikoa ja-
san behar izan du herri-es-
kolak Olan, Fronto eta Zi-
neko geletan banaturik. Ho-
rrezaz gain, Kultur Etxearen
erabilera ere beharrezkoa
izan da bideo-gela eta infor-
matika-gela jartzeko.

Hau dela eta, eskola be-
rriaren beharra ikusi zen eta
Zegamako herriak lan horri

urriaren 26an inauguratu
zuen eskola berria; eskola
honek dituen instalakuntzek,
proiektu pedagogikoa aurre-
ra gramen ahal izateko bal-
dintza hobeak eskaintzen di-
tuzte.

ekin zion.
15 urte lu-
ze igaro
ondoren
eta proiektu
ezberdi-
nak azter-
tu ondo-
ren, Zega-
mako he-
rriak

Inaugurazioa irekia izan
zen eta herritar ugari parte
hartu zuen eta erantzun hau
oso positibotzat jotzen du
Udalak nahiz eskolak, eta
eskerrak eman nahi dizkie
herritarrei nola bertaratuta-
ko kanpotarrei.

Gaztetxoentzat oharra

Kultur Etxeko azken Batzor-
deak, bertako bideo-proiek-
torearen erabilpena zabal-
tzeko asmoz, deialdi irekia
egitea erabaki zuen herriko
gazteek giltza izan zezaten.
Horretarako koadrilek beren
eskaera Kultur Etxeko Ba-

tzordeari egin behar diote,
bertan arduradunaren izen-
abizenak azaltzea beharrez-
koa da. Gai honi buruz hitz
egiteko eta eskaerak aurkez-
teko datorren azaroaren
17an, iluntzeko 8.30etan bil-
duko da Batzordea eta eska-
erak luzatu nahi dituzten tal-
deetako arduradunek ere
bertan entregatu behar dute
idatzia.

Zeramika erakusketa

Gregorio Aramendiren ome-
nez, zeramika erakusketaren
inaugurazioa izango da aza-
roaren 9an, eskola zaharre-
an, eguerdiko 12.00etan.

Ikastaroak

EPako tailerren bidez, eta
Kultur Etxeko diru-lagun-
tzarekin honako ikastaro
hauek antolatu dira azarora-
ko: **azaroaren 10ean hasi-
ta:** Elektrizitate ikastaroa, 8
ordu; Josten ikasteko ikasta-
roa, 18 ordu. Izenematea eta
informazioa, Udaletxean
egin behar da (Eduarne).

Bideo emanaldiak

Azaroak 2: 'Matilda'.
Azaroak 9: 'Independence
Day'.

Eduarne Albizu



Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnod. 65 29 01

Etxeko eta sukaldeko altzariak

IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

Argazkiak honetako argazkilaria.
En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

LAZKAO

Euskara lantzeko aukera paregabeak

Euskara ez ikasteko aitzakiak, Lazkaon behintzat, aspaldi amaitu ziren. AEK eta Maizpideko Euskaltegiek urtero burutzen dituzten ikastaroez gain, aurreko beste 5 ikastaro desberdin antolatuta dira. Horretarako, bi ikastetxeak, Udala, Goiherriko Euskal Eskola, AEK eta Maizpide erakundeak elkartu eta 5 aukera horiek eskeintzea erabaki dute.

Ikastaroen kopurua zabaltearen xedea euskara ikasi eta hobetzeko aukera jende gehiagok izatea da. Horretarako, ikastaro hauek talde desberdinentzat antolatuta dira eta beraiei beharrei egokituak jardunaldiak izango dira gainera.

Lehenengo ikastaroa "hika-staroa" deiturikoa da eta euskaraz badakitenei zuzendurik dago, bertan hitanoaren erabilera lantzen da hainbat ariketa eginez eta Euskaltzaindiaren azken arauak ikasiz. Hamar bat lagunekoko taldea buru belarri dabil jadanik ikastaro honekin.

Bigarren ikastaroa ikastetxetako haurren gurasoei

zuzendua dago. Urte batzuk badira aukera hau ematen zaiela gurasoei eta 36 bat lagun ari dira sei urratsetan banatuta.

Irakasleei zuzendutako ikastaroa berriz, hobekuntza ikastaroa da. Bertan, hainbat ikastetxetako irakasleek, beraiei hizkera lantzen dute.

Azken bi aukerak guztiz berriak dira eta gizartearen dauden beharrei egokituak gainera. Bata, Lazkaoko dendariei zuzendurikoa, eta bestea komunikabide desberdinetako kazetari eta esatarioi zuzendurikoa. Bistan da bi talde hauek euskararen zabalpenean duten ardura eta beraz, euskararen ezagutza hobetuz zabalpen lan hori ere hobea izan daiteke noski.

Informazio gehiago ondoko telefonoetan duzu: 889231 (Maizpide) eta 889174 (AEK).

Labur-labur

● Azaroaren 4-ean hitzaldi bat burutuko da **Goierriko arazo ekologikoak** aztertzeke. Hitzaldia arratsalde-



Urriak 24-ean jokatu zen Egin mus txapelketako Lazkaoko kanporaketa. Bertan irabazleak Jon Barandiaran eta Luis Lopez izan ziren, hauek herrialdeko kanporaketara joateko aukera eta afari bana irabazi zuten. Bigarren Mila Aldasoro eta Valentin Ropero izan ziren eta hauek ere afari eder bat irabazi zuten.

ko 8-etan izango da Udaletxeko Pleno Aretoan eta Eguzki erakundeke partaite bat izango da hizlari.

● Azaroaren 8-an **mendi irteera** bat izango da Goiherriko Euskal Eskolak antolatuta. Irteera Lazkaoko plazan izango da goizeko 9.00etan, ahalik eta perretxiku eta gaztaina gehien biltzeko helburuarekin.

● Azaroaren 12-an **iku-sentzunekoa** egongo da Maizpide euskaltegian gaueko 9-etan, "Udazkena

eta neguaren hasiera" izenburupean.

● Azaroan zabalik egongo da **etxebizitza sozialei buruzko informazioa** zabalteko telefono zerbitzu bat. Astelehenetik aurrera telefono hau Udaletxean eska dezakezue.

● **Hitza eta Ekintzak** irailan antolatu zuen zozketan 011 zenbakia izan zela sari-tua.

Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu



Siboney
ESTETIKA ZENTRUA

- ✓ Aurpegia gaztetzea
- ✓ Automakilaje ikastaroak
- ✓ Depilazioa
- ✓ Tratamendu mediku estetikoak

Senpere Merkatal Gunea ☎ 88 15 50 BEASAIN

KONTSULTA EZAZU



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

GOIERRITARRA



88 96 12

ORDIZIAKO

Suquia

Kale Nagusia, 10

SUKALDEKO ALTZARIAK

Sukaldea berritu nahi duzu? Zatoz eta ikus ezazu gure erakusketa

Vegasa

Xkey
Taldekoko

☎ 88 23 00

ORDIZIA

ORDIZIA

Aranako terrazako lanak amaitzean



Urte askotan epaitegietan aurrera eta atzera ibili ondoren, azkenik Arana kaleko bizilagunek euren terraza berriturik ikusteko aukera izango dute laster. Izan ere, aipatu terraza aspaldidanik zegoen egoera txarrean, azpiko garajeetara ura ere sartzen zelarik. Zenbaki bakoitidun atariak egoera txar hori salatu ondoren, epaitegietara jo eta arrazoia eman zieten. Enpresa eraikitzaileak, ordea, ez zuen bere zatia betetzen eta hor ziharduen

terrazak oso egoera kaxkarrean.

Azkenik, Udalak sartu behar izan zuen tartean eta enpresa eraikitzailearekin hitz egin ondoren, gastuak Udalaren esku joango zirela adostu zuten.

Honen truke Udalak Arana kaleko 4 merkatal-lokal jasotzen ditu. Argazkian ikus daitekeenez, lanak martxa onean doaz. Farola berriak, zurezko eserlekuak eta abar jartzeko asmoa dago, ur-filtrazioak ekiditzeaz gain, noski.

Diru-laguntzak

Udalak eman berriak ditu nazioarteko laguntzarako

zuzendutako diru-laguntzak. Ordizia 1987az geroztik dago 0,7ko kanpainan eta hau dela eta, aurtengo ia 6 milioi erabiliko ditu honetarako. Eskaera 9 ONGk egin bazuten ere, azkenik 6k jasoko dute diru-laguntza. Hauexek:

300.000 pezeta **'Rokpa Euskadi'**-k, Tibeteko gazteentzako mediku eskola sortzeko. **'Oscar Romero'**-k 1.317.335 pezeta, El Salvadorreko eskualde batean ur edangarria lortzeko sarea eraikitzeko. 1.339.787 pezeta **'Bakea eta Hirugarren Mundua'**-k, Chiapaseko haurren osasuna zaintzeko asmoz. **'Ocsi'**-k 1.279.758 pezeta, Venezuelako Caracas hiriburuko auzo pobreenetarikoa batean merkatal kooperatiba bat sortzeko. **'Cepai'**-k 825.500

pezeta jasoko ditu, baita ere Venezuelako Orinoko inguruko indigenentzat aroztegi parte bat sortzeko asmoz. Azkenik, **'Euskadi-Kuba'** elkarteak 600.000 pezeta jasoko ditu La Habana inguruko herri txiki batean etxebizitzak eraikitzeko, Lily hurakanaren ondorioz kalte-tua suertatu baitzen.

Behobia-Donostia

Datorren astean jokatu da Behobia-Donostia lasterketa herrikoia. Honetarako Jatorrak taldeak autobusa jarriko du nahi duen guztiak erabil dezan, egun berezi horretan Donostialdera joateko lasterketan parte hartzea. Lekua hartu nahi baduzu eman izena Josetxo Marinen argazki dendan, azaroak 6 baino lehen.

Aitor Calvillo

GABIRIA

Errezil sagarraren lehiaketa azaroaren 23an

Iaz antolatu zen lehenengo aldiz gure herrian Errezil sagarraren lehiaketa eta baserriko produktuen azoka, eta partaideen kopurua eta bildu zen jendetza kontuan izanik, aurtengo ere bada lehiaketa hori antolatzeko asmoa. Honela bada, azaroaren 23an, igandea, izango da eta parte hartu nahi duten herritarrek izena azaroaren 10a baino lehen eman behar dute udaletxean.

Baldintzak iazko berberak izango dira, parte hartzaileek 30na kilo sagar aurkeztu beharko dituzte eta horretarako antolatzaileek partaideei bina saski emango diete. Aurkeztu diren guztiei 3.000na pezeta jasoko dituzte eta lehenengo hiru sari bereziak izango dituzte. Goizeko 10.00etatik eguerdiko 2.00ak arte baserriko produktuen azoka ere izango da.

Gabino Murua



Iazko irabazleak epaimahaikoen artean.

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 88 27 93

ORDIZIA

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

'Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 ORDIZIA

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA



Ataunen duela 50 bat urte

Datu zehatzik ez badago ere, duela 50 bat urte San Martinen ateratako argazkia da, Jon Aizpuruak utzitako hau. Asko aurpegi ezagunak dira ataundarrentzat, ea ezagutzen dituzuen.



☎ 88 55 00 ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8


☎ 88 04 53

BEASAIN

Oriako Pasealekua, 20

☎ 88 87 02

BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

BEASAINGO 1997ko UDAZKEN KULTURALA

Loinazko San Martinen heriotzaren 400. urteurrena

Urriak 31

18.30etan: Erraldoi eta Kilikien irteera Txistulariek lagunduta.

20.00etan: Aizkorri Mendizale Elkartean diapositiba emanaldia.

22.30etan: ANTZERKIA: "Chicos Mambo Show" taldearen "Barcelona, Paris, Caracas" antzezlanaren Usurbe Antzokian.

Azaroak 1

17.00etan eta 19.00etan: "TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON" pailasoen "Pantera beltza" Usurbe Antzokian.

23.00etan: ANDRA MARI DANTZATALDEAREN Euskal dantzen jaialdia Loinazko San Martin Plazan.

Azaroak 2

8.00etan: Murumendi eta Garinera mendi-irteera "finalistaren eguna" ospatzera.

12.00etan: IV PINTURA-TAILERRA Joan Iturralde Plazan.

12.00etan: DEBAKO BANDAREN kalejira. 13.00etan KONTZERTUA Loinazko San Martin Plazan.

19.30etan: "TIRRI-TARRA"ren "Kass & Kass" show berria Loinazko San Martin Plazan.

Azaroak 5

17.30etan: Irakurketa suspertzeko emanaldia Arrate Leundarekin, Kultur Etxeko Liburutegian.

22.30etan: KAFE-ANTZERKIA: Xebe Diez eta Teresa Lopez de Munainen "Urrundik eta elkarrekin" Teide Kafetegian.

Azaroak 6

17.00etan: Haur marrazki lehiaketa Ezkiagako Auzo Etxean.

19.30etan: Joan Mari Torrealdaireren "Euskal kultura gaur" liburuaurren aurkezpena Kultur Etxeko Liburutegian.

21.00etan: ZINE-KLUBA: Rikardo Larrain zuzendariaren "La frontera" filmea Usurbe Antzokian.

Azaroak 7

18.30etan: Erraldoi eta Kilikien irteera Txistulariek lagunduta Loinazko San Martin Plazatik.

23.00etan: BENITO LERTXUNDIren kantaldia Usurbe Antzokian.

Azaroak 8

10.00etan: AZOKA BEREZIA.

12.00etan: XII. ODOLKI-DASTAKETA ETA LEHIAKETA.

17.30etan: II. DANTZA LIBREKO LEHIAKETA.

23.00etan: DANTZALDIA Furunda taldearekin. Dena Loinazko San Martin Plazan.

Azaroak 9

TXISTULARIEN EGUNA

9.30etan: Udaleko Txistulari Bandaren Kalejira. 12.00etan Goierriko Txistularien Kalejira. 12.30etan Goierriko Txistularien kontzertua Loinazko San Martin Plazan.

17.00etan: Eskulan tailerra Joan Iturralde Plazan.

19.00etan: "TRAPU ZAHARRA" antzerki taldearen "Tambores Mundi" ikuskizuna Kale Nagusia eta Zaldizurreta Plazan.

19.30etan: BEASAINGO IV. DIAPOSITIBA RALLYaren sari-banaketa eta aurkeztutako lanen ikustaldia Udaletxeko Batzar-Aretoa.

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidekin)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babezteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKO ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

97 Azaroaren
8a arte
Ko
Marca
arrakastatsuenak

PRYCA

GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK